



EUSKADIKO AUTONOMIA ERKIDEGOA

LAN MERKATUAREN ERROLDA 2013

2014ko abuztuak 18

*Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Estatistikarako
Organo Berezia*



SARRERA

Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Estatistikarako Organo Bereziak Lan Merkatuaren Erroldaren (LMEren) 2013ko edizioa osatu du, eskaintzaren azterketan oinarrituta.

Eskaintza-fasean, LMEren helburu orokorra da Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren herritarren lan-indarraren eskaintza ezagutzea, eta informazio hori Biztanleria Jardueraren Arabera (BJA) sailkatzeko inkestarekin eta Biztanleria Aktiboaren inkestarekin (BAIrekin) osatu da. Testuinguru horretan, LME honako bi helburu nagusi hauetan oinarritzen da.

Lehenik eta behin, eta lehentasun modura, LME Lurralde Historikoak baino lurralde-eremu txikiagoak direnetan lan-indarraren eskaintzaren azterketarako erreferentzia da. Ildo horretatik, LMEk Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldea osatzen duten hamaika eskualde edo enplegu-arroetarako 16 eta 64 urte bitarteko biztanleriaren jarduera, okupazioa eta langabeziarekin lotutako alderdi nagusiei dagokien informazioa eskaintzen digu. 20.000 biztanle baino gehiagoko udalerriei dagokienez, baita enplegu-eskualde edo -eremu bakoitzak osatzen dituen azpieskualde nagusiei dagokienez ere, LMEk jarduera, okupazio eta langabeziaren adierazle orokor batzuk ere eskaintzen ditu.

Bigarren helburua, eta osagarri modura, LMEk lurralde-esparru ezberdinen sektore- eta lanbide-egituretara estatistika maila zehatzagoarekin hurbiltzeko aukera ematen du, jarduera, okupazio edo langabeziari buruzko eragiketetan (BAI edo BJA) ohikoa dena baino lagin-erreferentzia zabalagoa baitu oinarri.

Ildo horretatik, LMEk biztanleria ez-aktibo, langabe edo landunaren taldeei dagozkien berariazko alderdi batzuetan sakontzeko aukera ematen du, Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan eta, hala badagokio, Lurralde Historikoan txertatutako informazioari esker. Zehazki, BJAk edo BAIk oso gutxitan kontuan hartutako honako gai hauek azaltzen ditu:

- * Goi-mailako kualifikazio teknologikoa duten sektoreetako okupazioa.
- * Duela gutxiko (duela 5 urte baino gutxiagoko) okupazioaren ezaugarri nagusiak.
- * Enplegu-aniztasunaren eragina.
- * *Etsia hartutako langabezia* deritzonaren eragina (etsia hartutako ez-aktiboena).
- * Lanerako prest dagoen biztanleria ez-aktiboaren karakterizazioa.

- * Biztanleriaren karakterizazioa, azken urtean lanean jardun duen denboraren arabera, modu jarraituan lan egin duen biztanleria landunari arreta berezia eskainita.
- * Lana bilatzeko moduak zehaztea, lanpostu bat lortzeko baldintza batzuk onartzeko prestasuna zehaztea eta lanpostu bat lortzeko hautemandako eragozpenak antzematea (erreferentzia berezia egin zaie prestakuntza-mailak, sexuak, adinak eta nazionalitateak eragin ditzakeen eragozpenei), etab.

LMEk, baita ere, jarduera, okupazio eta langabeziarekin lotutako ezagutza-esparru berriei buruzko informazioa eskaintzen du. Hala, azpimarragarria da 2005etik hona eskaintzea okupazioen sarrerei buruzko informazioa, baita EAEn bizi den atzerriko biztanleriaren okupazio-ezaugarriei buruzkoa ere.

1993 urtetik aurrera, LMEk aipatu alderdiei buruzko aldizkako informazioa eskaintzen du. Horri esker, EAEko eskualde, azpieskualde eta udalerri handietan lan-merkatuaren errealitatea epe luzera jarraitzeko aukera ematen du.

Adierazitako esparrua kontuan hartuta, dokumentu honek 2013ko Lan Merkatuaren Erroldan hautemandako emaitza nagusiak biltzen ditu. Euskadiko lan-merkatua epe ertainean edo luzean eraginpean hartuko duten egitura-joera nagusiak kontuan hartzen baditu ere, dokumentuaren helburu nagusia Euskal Autonomia Erkidegoko jarduerak, okupazioa eta langabeziak 2007tik 2013ra bitarte izan duten dinamika aztertzea da¹. Azterlanaren xede-biztanleria 16 urtetik 64 urtera bitartekoa da, eta informazioaren erreferentzia-data urte bakoitzaren azken hiruhilekoa da.

LME 2013 txostenaren emaitzak laburbilduta aurkeztu dira, eta hautemandako aldaketa nagusiak izango ditu ardatz. Emaitza nagusien txostenarekin batera aurkeztutako Estatistika Eranskinari esker, eragiketaren estatistika-emaitzetan xehe sakontzeko aukera emango du.

.

¹ Jardueraren eta lanbidearen azterketarekin lotutakoan, EJSN-2009 eta LES-2011n oinarritutako eguneratutako datuak eskaintzen badira ere, bilakaeraren azterketa ELSN-93 eta LES-94ean oinarritzen da. Ildo horretatik, errazagoa da, eta akats edo interpretaziorako aukera gutxiago ematen du, egungo informazioa jatorrizko sailkapenetara doitzea, 2009 eta 2011 aldiaren aurreko informazioari dagokionez.



EMAITZA NAGUSIAK

I. BIZTANLERIA AKTIBOAREN BILAKAERA

Biztanleria aktiboak gorantz egiten jarraitzen du EAEn baina lan-merkatuan jardueraren goranzko presioa baretu egin da

1. Biztanleria aktiboak, 2009az geroztik, goranzko joera izan du, baina 2007-2009 biurtekoan gertatutako hazkunde handiaren oso bestelakoa da

2011 eta 2013 artean, EAEko biztanleria aktiboaren bolumenak gorantz egiten jarraitu du, eta 2013 amaieran Euskadin 1.046.336 pertsona aktiboren kopuru maximoa lortu da. Zifra hori 1993 urteko 921.556 pertsona aktiboen kopurua baino % 13,5 handiagoa da, baita 2007ko 1.002.357 pertsona aktiboen kopurua baino % 4,4 handiagoa ere.

Hala ere, jarduera-mailetan gertatutako aldaketek ez dute krisiaren hasierako urteetan antzeman zen presioa egin lan-merkatuan. 2007 eta 2009 artean, biztanleria aktiboaren hazkundearen batez besteko urteko erritmoa % 1,75era hazi ondoren, hazkunde horren urteko batez bestekoa, 2009tik aurrera, % 0,20 inguruan gelditu zen. 2011tik 2013ra bitarte hautemandako gorakada –urteko batez beste % 0,25 igo zen, 2009-2011 biurtekoaren % 0,17arekin alderatuta–, lanerako prest dagoen biztanleria ez-aktiboaren estatistika-hurbilpenaren prozeduraren aldaketekin ere lotuta dago².

2. Goranzko joera jarduera-tasaren gorakadaren emaitza da, eta 16 eta 64 urte bitarteko biztanleriaren jaitsiera orekatzen du

Biztanleria aktiboaren bolumenaren hazkundea jarduera-tasaren hazkundearekin lotuta dago. 2003 eta 2005ean % 69,6koa zen, 2007an % 70,3ra igo zen, % 72,2ra 2011n eta % 75,2ko maximora 2013an.

Hazkunde horrek 16-64 urte bitarteko biztanleriaren bolumenaren beheranzko joera orekatzen du, berau 2005etik indartu egin baita, nahiz eta 2007 eta 2009an noranzkoa aldatu. Hala, 2005ean 16 eta 64 urte bitarteko pertsonak 1.433.604 izanik, 2007an 1.425.959 pertsonara jaitsi zen. 2009an igo ondoren –Euskadira migrazio-fluxuak igotzearen ondorioz–, 16 eta 64 urte bitarteko biztanleriak beheranzko joerari ekin zion berriz, 2013an 1.390.977 pertsonara iritsita; 1993tik ezagutzen den zifrarik baxuena da.

² Enplegurako prest dagoen biztanleria ez-aktiboaren barruan, enplegu bila dabilen eta lanerako prest dauden, baina azken hilabetean okupazio berria aurkitzeko berariazko kudeaketa edo ekintzarik egin ez duten pertsonak sartzen dira, (enplegu-zerbitzu publikoetan eskari formal bat eguneratzerik izan ez dutenak barne). LANEren irizpideei jarraiki biztanleria hori BJA eta LMEan langabe gisa sailkatu ordez ez-aktibo gisa sailkatzeko arrazoia enplegua bilatzeko berariazko ekintzarik egin ez izana da.

Aipatu behar da 2011tik 2013ra bitarte lanerako prest dagoen biztanleria ez-aktiboaren kopuruan hautemandako beherakada handiaren zati handiena BJA, eta ondoren LMEan, txertatutako aldaketekin lotuta dagoela, enplegua bilatzen ari den biztanleria ez-landunak egindako lan-bilaketarako jarduerak modu zabalagoan antzemateko.

2007 eta 2013 urteetan, deskribatutako bilakaeraren ondorioz, 16 eta 64 urte bitarteko biztanleriaren jaitsiera 34.983 pertsonakoa da, EAE krisiaren hasieran bizi zirenen % 2,45.

16-64 urteko guztizko biztanleriaren eta biztanleria aktiboaren bilakaera. 1993-2013 aldia

(Datu absolutuak, jarduera-tasa %-tan eta biztanleria aktiboaren urtetik urterako batez besteko hazkunde-tasa %-tan)

Urtea	Biztanleria guztira		Biztanleria aktiboa	
	Abs.	Jarduera-tasa	Abs.	Urtetik urterako hazkunde-tasa
1993	1.466.028	62,9	921.556	
1995	1.479.685	62,7	928.381	0,37
1997	1.468.915	64,1	941.324	0,69
1999	1.478.068	65,6	969.459	1,48
2001	1.424.579	65,8	937.633	
2003	1.408.719	69,6	980.220	0,28
2005	1.433.604	69,6	997.280	0,87
2007	1.425.959	70,3	1.002.357	0,25
2009	1.451.941	71,5	1.037.659	1,75
2011	1.442.831	72,2	1.041.195	0,17
2013	1.390.977	75,2	1.046.366	0,25

3. Eskualdeetako jarduera-tasak bat datoz, eta batez bestekoaren azpitik daude Aiaraldea, Ezkerraldea eta Eskuinaldea. Hala ere, Gasteiz, Bizkaia-Kosta eta Debabarrena dira azpimarratzekoak, biztanleria aktiboa nabarmen hazi baita

2007 eta 2013an biztanleria aktiboaren bolumena % 4,4 haztea EAEn jarduera-tasaren goranzko joerari lotutako % 7ko igoerarekin lotuta dago. Hazkunde horrek 16 eta 64 urte bitarteko biztanleriaren bolumenaren murrizketaren ondorioz biztanleria aktiboa % 2,6 jaitsi izana orekatzen du.

Hala ere, demografiaren eta jarduera-tasen dinamikak eskualdeetako aldakuntza batzuk baldintzatzen dute, eta lurraldearen ikuspegitik, hiru egoera ezberdin ezar daitezke EAEn.

Lehenik eta behin, Gasteiz, Bizkaia-Kosta eta Debabarrena eskualdeetan, 2007 eta 2013 artean biztanleria aktiboaren hazkundera EAeko batez bestekoaren oso gainetik dago, % 7,8koa da Debabarrenean eta % 8,9koa Bizkaia-Kostan. Eskualde horien ezaugarri nagusia da jarduera-tasaren gorakadaren ondorioz aktibo kopurua areagotu dela, EAeko batez bestekoa baino % 8tik % 10,7ra artean. Bizkaia-Kostaren eta Gasteizen kasuan, gainera, ez dago 16 eta 64 urte bitarteko biztanleriaren jaitsierari lotutako aldakuntza negatiborik. Gaur egun, eskualde horien jarduera-tasak batez bestekoaren berdinak edo handiagoak dira (% 75,2 eta % 77,2 artean).

Bigarren eskualde-taldea osatzen dute biztanleria aktiboa EAEko batez bestekoaren antzera hazten doazenak, % 3,2 eta % 5,4 artean. Eskualde-talde multzo honetan bi azpitalde bereiz daitezke. Lehenengoan Bilbo, Ezkerralde eta Durangaldeko eskualdeak daude.

Gasteiz, Bizkaia-Kosta eta Debarrenaren kasuetan gertatu bezala, hiru lurralde-eremu horietan jardura-tasen aldakuntza positiboei lotutako biztanleria aktiboaren hazkuntza EAEko batez bestekoaren gainetik dago (% 8 eta % 9,2 artean). Gorakada hori, hala ere, nabarmen konpentsatzen da 16 eta 64 urte bitarteko pertsona kopuruaren beherakadarekin lotutako biztanleria aktiboaren beherakadarekin; Durangaldean % 2,3 eta Bilbo eta Ezkerraldean % 4,4tik % 4,8 artean. Durangaldeko kasuan izan ezik –bertan, biztanleria aktiboa batez bestekoa baino zertxobait gehiago hazi da (% 5,4) eta tasa % 76,2koa izan da, EAEko batez bestekoa baino puntu bat handiagoa–, eskualde horiek batez bestekoaren maila berean edo azpitik daude (% 75,1 Bilbon eta % 73,2 Ezkerraldean)³.

Bigarren azpi-taldean daude Donostialdea eta Tolosa-Goierri eskualdeak. Kasu honetan, jardura-tasen aldakuntzari lotutako biztanleria aktiboaren gorakada EAEko batez bestekoaren azpitik dago (% 4,9 eta % 2,9), baina 16 eta 64 urte bitarteko biztanleriaren beherakadaren eragin negatibo txikiagoarekin dago lotuta (% -1,7 Donostialdean) edo, baita ere, biztanleria horren gorakadarekin lotuta (% +0,6 Tolosa-Goierri).

Eskualdeen hirugarren taldean biztanleria aktiboa batez bestekoa baino nabarmen txikiagoa da, Eskuinaldean % 2,2koa esaterako, edo biztanleria hori erabat egonkortsu delako (% 0,1 Debagoienean eta % -0,4 Aiaraldean). Aiaraldean prozesu hori jardura-tasaren eta 16-64 urteko biztanleriaren egonkortasunari lotuta dago, eta Debagoienean eta Eskuinaldean biztanleria aktibo kopuruaren beherakada erabakigarria izan da, 16 eta 64 urte bitarteko biztanleriaren beherakadari lotuta. Eskuinaldean, beherakada hori nahikoa izan da jardura-tasaren gorakadari aurre egiteko, berau EAEko batez bestekoaren gainetik dago.

Dinamika horren ondorioz, 2013an jardura-tasak bateratzeko prozesua eman da; hamaika eskualdeetatik zortzi % 75,1 eta % 77,2 artean daude. Alde batetik, EAEko batez bestekoak baino hazkunde handiagoa izan duten jardura-tasek prozesu hori bultzatu dute Bizkaiko eskualdeetan, baita Gasteizen eta Debarrenean ere; horietan guztietan, jardura 2007an EAEko batez bestekoan edo azpitik zegoen.

³ Debarrenak, 2003 eta 2007 artean biztanleria aktiboa hazi duten eskualdeen taldean egonik, talde horren ezaugarriak ditu, eta 16 eta 64 urte bitarteko biztanleriaren beherakadari lotuta biztanleria aktiboa % 2,8 jaitsi da. Hala ere, biztanleria aktiboaren hazkundeari dagokionez, EAEko eskualde hedakorrenetakoen barnean kokatzen da, tasetan aldakuntzaren eragin positiboagoa izan baitu (Durangaldeari dagokionez) edo 16-64 urte arteko biztanleria gutxiago jaitsi baita (Bilbo eta Ezkerraldeari dagokionez).

Bestalde, jarduera-tasak EAEko batez bestekoaren azpitik hazi izanak jardueraren hazkundera txikiagoa izaten laguntzen du, 2007an jarduera-tasa handiagoak zituzten eskualdeetan (Aiaraldea eta Gipuzkoako eskualdeetan, Debabarrenean izan ezik).

Jarduerarako joera EAEko zifra nagusien oso azpitik dago Aiaraldea, Eskuinaldea eta Ezkerraldea, eta jarduera-tasak % 72,3 eta % 73,8 artean daude. Bizkaiko bi eskualdeek jada 2007an zuten egoera atzeratua mantentzen duten bitartean, jarduera-tasa egonkortzeak Aiaraldea 2007an jarduerarako joera handiena zuen eskualdeetako bat izatetik 2013an tasa txikiak dituen eskualdeetako bat izatera behartzen du.

16-64 urteko guztizko biztanleriaren eta aktiboaren eta jarduera-tasaren bilakaera, eskualdearen arabera

2007 eta 2013 urteak

(Datu absolutuak, jarduera-tasa ehunekotan y biztanleria aktiboaren aldakuntza-faktorea 2007 eta 2013 artean, ehunekotan)

Eskualdea	Biztanleria guztira (Datu absolutuak)		Biztanleria aktiboa (Datu absolutuak)		Jarduera-tasa (Ehunekotan)		Biztanleria aktiboaren aldakuntza-faktorea 2007 eta 2013 artean (Ehunekotan)		
	2007	2013	2007	2013	2007	2013	16-64 urteko biztanleria	Jarduera- tasa	Guztira
Gasteiz	180.053	180.128	127.298	137.576	70,7	76,4	0,0	8,0	8,1
Aiaraldea	28.093	27.935	20.271	20.195	72,2	72,3	-0,6	0,2	-0,4
Bilbo									
Eskuinaldea	110.224	104.967	75.813	77.507	68,8	73,8	-5,1	7,4	2,2
Bilbo	229.933	219.729	158.086	164.966	68,8	75,1	-4,8	9,2	4,4
Ezkerraldea	262.105	251.320	177.597	183.942	67,8	73,2	-4,4	8,0	3,6
Bizkaia-Kosta	81.628	81.732	56.463	61.471	69,2	75,2	0,1	8,7	8,9
Durandaldea	79.530	77.818	56.288	59.307	70,8	76,2	-2,3	7,7	5,4
Donostialdea	306.812	301.828	223.299	230.366	72,8	76,3	-1,7	4,9	3,2
Tolosa-Goierrri	71.844	72.272	53.006	54.859	73,8	75,9	0,6	2,9	3,5
Debagoiena	40.526	38.938	29.674	29.694	73,2	76,3	-4,1	4,1	0,1
Debabarrena	35.212	34.308	24.563	26.485	69,8	77,2	-2,8	10,7	7,8
Guztira	1.425.959	1.390.977	1.002.357	1.046.366	70,3	75,2	-2,6	7,0	4,4

II. BIZTANLERIA LANDUNAREN BILAKAERA

Azken urteotan, okupazioaren jaitsiera da EAEko lan-merkatuaren egiturazko ezaugarria

4. Okupazioaren beherakada indartu egin da 2011tik 2013ra bitartean

2007-2009 biurtekoan, langabeziaren zifran 59.000 pertsona gehiago egotea biztanleria aktiboaren gorakadarekin dago lotuta, hein handi batean; biurteko horretan biztanleria landunaren jaitsiera 23.698 pertsonakoa izan zen.

Biurteko hartan ikusitakoaren aldean, 2009tik aurrera okupazioaren beherakada langabezia kopuruaren gorakada azaltzen duen faktore nagusi bihurtuko da. Hala, 2009 eta 2013 artean langabezian 69.710 pertsona gehiago egotea 61.003 pertsonari eragiten dioten okupazio-galerei lotuta dago. Osotasunean, 2007 eta 2013 artean, EAEk 84.701 pertsona landun galdu ditu, 2007an lanean zeuden 970.957 pertsonen % 8,7.

2011tik aurrera, nabarmen indartu da, bestalde, okupazioaren murrizketa-erritmoa. 2007 eta 2009 artean urteko batez beste % 1,23 jaitsi zen, 2008 eta 2009 artean gehien bat, eta zifra hori % 1,01ra jaitsi zen 2009 eta 2010 artean. 2010 eta 2011 artean % 1,43 igo zen eta urteko batez beste % 2,08ra iritsi zen 2011 eta 2013 artean. Okupazioaren beherakadaren banaketan, biurtekoen arabera ikusita, % 28 krisiaren hasierako aldiari dagokio, eta beste % 27,1 2009-2011 aldiari. Okupazioaren beherakadarik handiena, hala ere, 2011-2013 aldiari dagokio, % 44,9koa izan baitzen.

EAEko 16-64 urte bitarteko biztanleriaren okupazio-koefizientea krisiaren ondorioz galdutako okupazioekin batera murriztu da⁴. 2007an lortutako % 68,1eko maximotik, % 65,2ra jaitsi zen 2009an, % 64,1 2011n eta % 63,7 2013an. 2003ko gehienezkoa (% 63,4) baino zertxobait handiagoa izaten jarraitu arren, 2011ko adierazlea 2005eko % 66,1etik 2,4 puntura dago.

⁴ Okupazio-koefizientea zera da, erreferentziazko biztanle guztien artean (kasu honetan, 16-64 urteko biztanle guztiak) lan egiten ari diren biztanleek ordezkatzan duten batez bestekoa.

Europar enplegu-tasa erabiltzen da okupazio-tasatik bereizteko (pertsona aktibo guztiei dagokienez, biztanleria landunaren kopurua erlazionatzen duen tasa). Nolanahi ere, terminologia hori formaren aldetik ez da erabat zuzena. Izan ere, enpleguaren kontzeptua okupazioaren kontzeptuarekin parekatzen da, eta hori ez da egokia. Horregatik, LMErako hobe da okupazio-koefiziente kontzeptua erabiltzea.

16-64 urteko landunen bilakaera. 1993-2013 aldia

(Okupazio-koefizientea ehunekotan, datu absolutuak eta biztanleria landunaren urtetik urterako batez besteko hazkunde-tasa ehunekotan)

Urtea	Okupazio-koefizientea	Biztanleria landuna	
		Abs.	Urtetik urterako hazkunde-tasa
1993	46,6	683.079	
1995	47,9	708.225	1,82
1997	51,1	750.439	2,94
1999	55,7	823.948	4,78
2001	60,5	861.814	2,27
2003	63,4	893.439	1,82
2005	66,1	948.180	3,02
2007	68,1	970.957	1,19
2009	65,2	947.259	-1,23
2010	64,6	937.701	-1,01
2011	64,1	924.295	-1,43
2013	63,7	886.256	-2,08

5. Okupazioaren beherakadak eragin ezberdina du eskualdearen arabera

2007 eta 2013 artean, beherakada handienak Bilbo, Ezkerralde, Aiaralde eta Debagoienan gertatu dira.

Okupazioaren bilakaera oso ezberdina izan da eskualdearen arabera. 2007 eta 2013 bitartean, beherakada handiena beren hasierako okupazioaren % 10 galdu duten eskualdeei dagokie. Nabarmena da hori Aiaraldean (-% 14,4), Debagoienan (-%10,8) eta Bizkaiko Bilbo eta Ezkerraldean (-%10,3 eta -% 12,3, hurrenez hurren).

Aipatu lau eskualde horietan, erabakigarria izan da krisiaren bigarren faseari, 2009aren ondotik, lotutako galeren eragina, eskualde bakoitzaren garapen-aldiak ezberdinak diren arren. Bilboren kasuan, alde batetik, krisiaren bigarren fasearen hasierako agerpena harrigarriki aurreratu da, eragin erlatiboa, ondoren, murriztu bada ere. Hala, 2011 eta 2013 artean okupazioaren beheranzko joera mantendu bada ere (urtean -% 1,1 batez beste), eskualde horretako jaitziera nagusiak 2009-2011 aldiari dagozkio, 2009 eta 2010 artean % 2,9 jaitsi zen eta 2010 eta 2011 artean % 5,1.

Ezkerraldean 2010 eta 2011 artean erregistratutako okupazioa % 3,4 jaitsi izanak, 2009tik 2010era % 0,3 jaitsi ondoren, eskualde horrek epe labur eta ertainera Bilboko bilakaera negatiboari jarraitzea iradokitzen zuen; beldur hori baieztatu egin zen 2011tik 2013ra bitarte urteko batez beste % 3,9ko beherakadarekin. Ildo beretik, Debagoienean 2011-2013 aldiko beherakada handiak (urteko batez beste % -3,3) baino lehen, 2010etik 2011ra bitarte % 0,9 jaitsi zen, eta, hala, 2009tik 2010era bitarte eskualde horretan gertatutako okupazioaren susperraldia amaitu zen.

16-64 urteko landunen bilakaera, eskualdearen arabera. 2005-2013 aldia

(Datu absolutuak, urtetik urterako batez besteko hazkunde-tasaren ehunekoa eta 2013ra bitarteko okupazioaren aldakuntza ehunekotan)

Eskualdea	Absolutuak						Urtetik urterako batez besteko hazkundearen tasa					Aldakuntzaren ehunekoa 2007/2013	Aldakuntzaren ehunekoa 2005/2013
	2005	2007	2009	2010	2011	2013	2005/ 2007	2007/ 2009	2009/ 2010	2010/ 2011	2011/ 2013		
Gasteiz	123.764	124.625	123.998	122.121	121.889	116.084	0,3	-0,3	-1,5	-0,2	-2,4	-6,9	
Aiaraldea	18.923	19.944	19.109	19.658	19.993	17.075	2,7	-2,1	2,9	1,7	-7,6	-14,4	
Bilbo Eskualdea	71.288	72.626	70.721	69.829	70.745	66.135	0,9	-1,3	-1,3	1,3	-3,3	-8,9	
Bilbo	144.541	150.399	149.887	145.485	138.041	134.921	2,0	-0,2	-2,9	-5,1	-1,1	-10,3	
Ezkerraldea	167.050	170.931	168.679	168.199	162.470	149.954	1,2	-0,7	-0,3	-3,4	-3,9	-12,3	
Bizkaia-Kosta	50.792	54.778	53.921	52.845	52.291	53.345	3,8	-0,8	-2,0	-1,0	1,0	-2,6	
Durantaldea	51.241	55.213	51.804	52.715	52.685	52.403	3,8	-3,1	1,8	-0,1	-0,3	-5,1	
Donostialdea	214.242	217.074	210.520	206.193	205.913	198.772	0,7	-1,5	-2,1	-0,1	-1,7	-8,4	
Tolosa-Goierrri	52.612	52.150	48.942	50.133	49.399	48.686	-0,4	-3,1	2,4	-1,5	-0,7	-6,6	-7,5
Debagoiena	30.518	29.259	27.398	28.180	27.928	26.091	-2,1	-3,2	2,9	-0,9	-3,3	-10,8	-14,5
Debarrena	23.209	23.958	22.280	22.342	22.941	22.790	1,6	-3,6	0,3	2,7	-0,3	-4,9	
Guztira	948.180	970.957	947.259	937.701	924.295	886.256	1,2	-1,2	-1,0	-1,4	-2,1	-8,7	

Aipatu eskualdeen alean, Aiaraldean okupazioaren beherakada, batez ere, 2011 eta 2013 artean gertatu da, eta biurteko horretan urtean batez beste okupazioaren % 7,6 galdu da.

Krisiaren bigarren fasea erabakigarria izan bada ere aipatu lau eskualdeentzat, horietako batzuk lehenengo eragin atzeragarria ere pairatu dute. Aiaraldean okupazioa urtean % 2,1 murriztu bada 2007 eta 2009 artean, Debagoienan lanpostuak galdu dira 2005-2009 aldi osoan zehar, 2005 eta 2007 artean urtero batez beste % 2,1 jaitsi zen eta 2007 eta 2009 artean % 3,2. Eskualde horietan, hala ere, aldi baterako orekatzen dute beherakada hori, 2009 eta 2010 artean okupazioak urteko % 2,9 hazita, eta Aiaraldean egoera hori 2010-2011 aldira ere luzatuko da (% +1,7).

Aiaraldeak 2011tik aurrera duen bilakaera negatiboa azpimarratzekoa da, baina ordura arte aldekoen zuen bilakaera zuen eskualdeetako bat zen. EAEko eskualde industrialenei dagokienez, Aiaraldea azpimarratu behar zen 2011n; izan ere, bertan izan zen 2007-2009 aldiko hasierako krisiaren eragin txikiena (urteko % -2,1, batez beste; Durangaldean, Tolosa-Goierriin, Debagoienean eta Debabarrenean, berriz, % -3,1 eta % -3,6 artekoak), eta gero, 2009-2011 aldian, okupazioaren susperraldi handiagoa izan du (urteko % +2,3, batez beste; gainerako erreferentzia-eskualdeek, berriz, % 0,5 eta % 1,5 artekoak). EAE osoan, Aiaraldea izan zen 2011n 2009ko okupazio-mailaren antzekoa izan zuen eskualde bakarra (% +0,2).

Berriki gertatutako enplegu-krisiak nabarmen eragin duen beste eskualdea dugu Debagoiena. Bertan, okupazioaren beherakada, Tolosa-Goierriin gertatu den moduan, 2005-2007 aldira aurreratu da. 2005-2011 aldiko ikuspegian, Debagoiena, hain zuzen, okupazio gehien galtzen duen EAEko eskualdea da, % 14,5, Aiaraldean 2007-2013 aldian jaitsitakoaren antzekoa.

Beherakada neurrizkoa baina garrantzitsua Eskuinalde eta Donostialdean

Okupazioaren beherakada EAEko batez besteko mailari hurbiltzen hasi da Eskuinaldean eta Donostialdean (-% 8,9 eta -% 8,4, hurrenez hurren). Lehenengo kasuan, Bizkaiko eskualdeak EAEko okupazioaren murrizketak gehien eragin dituen eskualdeen antzeko ezaugarriak ditu, 2011 eta 2013 artean urteko % 3,3, batez beste, jaitsi baita; biurteko horretan Ezkerraldean jaitsitakoaren ia sei-hamarren gutxiago. Eskuinaldea izan da krisiaren lehen eragina gehien pairatu duen eskualdea (2007tik 2010era bitarte urteko batez beste % -1,3 jaitsi zen, Ezkerraldean, aldiz, % -0,5). Hala ere, eskualde horren okupazioaren % 1,3 berreskuratu du 2010 eta 2011 artean, Bilbok eta Ezkerraldeak enplegua % 3 baino erritmo handiagoan galtzen duten unean. Berreskuratze horri esker –EAEko hiriguneetan aipatu aldian ez da ohikoa– 2007-2013 aldian Eskuinaldeko okupazioaren beherakada Bilboko beste bi eskualdeetako baino zertxobait baxuagoa da.

Donostialdeak, aldiz, erritmo jarraituan galdu du okupazioa, baina, orokorrean, EAEko batez bestekoaren gertukoa izan da; beraz, aldi bakoitzean gehien eragindako eskualdeetakoa baino neurrizkoagoa izan da (-% 1,7 2011 eta 2013 artean). Eremu geografiko horrena, 2009-2010 aldiko beherakada handia (-% 2,1) 2010 eta 2011 artean okupazioa erabat egonkortzearekin orekatu da (-% 0,1).

Galera txikiagoak Gasteiz, Durangalde, Debabarrena eta Tolosa-Goierri, eta Bizkaia-Kostaren kasuan, suspertu egin zen 2011-2013 biurtekoan

Okupazioaren beherakada hain handia ez bada ere -% 6,9 eta % 4,9 artekoa-, berau esanguratsua izan da 2007tik 2013ra bitarte Gasteiz, Durangalde, Tolosa-Goierri eta Debabarrenean.

Arabako eskualdean, beherakada nagusia 2011-2013 aldiari dagokio, okupazioa urtero batez beste % 2,4 murriztu baita. Hala ere, 2011ra arte okupazio-krisiak indar txikiagoa zuen eskualde batek % 2tik gorako beherakada jasan duen kasu bakarra da, eta okupazioaren urteko galera, batez beste, % 1ekoak baino handiagoak izan dira 2009 eta 2010 artean.

Gasteizen kasuan ez bezala, beste hiru eskualdeak urteko batez beste % 3,1 eta % 3,6 artean jaitsi dira 2007-2009 biurtekoan. Aldiz, galera murrizak izan dituzte 2011-2013 artean (urteko % -0,3, batez beste, Debabarrenean eta Durangaldean, eta % -0,7 Tolosa-Goierri).

Lau eskualde horiek partekatzen duten ezaugarria da, uneko aldi batzuetan okupazioaren beherakada handia izan bada ere, 2007-2013 aldiko gainerakoan ez dutela beherakadaren urteko % 1,5eko batez bestekoa gainditu eta, gainera, okupazioaren egonkortze eta, baita ere, susperraldi une batzuk ere izan dituztela. Hori gertatu da, azken kasu horretan, 2009tik 2011ra bitarte Debabarrenean, edo 2009tik 2010era bitarte Durangaldean eta Tolosa-Goierri.

2007-2013 aldiko okupazioaren beherakada txikiena Bizkaia-Kostak izan du, eta guztira 2007ko okupazioaren % 2,6 baino ez da jaitsi. 2007tik 2011ra bitarte neurrizko galerak pairatu ostean – 2009 eta 2010 artean % 2ko maximoa jaso zuen–, berau da 2001tik 2013ra bitarte okupazioa zertxobait suspertu duena; urteko % 1, batez beste, hazi da azken biurteko horretan.

Okupazio-koefizienteen bilakaeran izandako eraginean gorabeherak, aipatzekoa da biztanleria mantendu dela Gasteiz, Aiaraldea, Donostialdea eta Tolosa-Goierrin

2007-2013ko okupazio-koefizienteen bilakaerak hein handi batean islatzen du okupazioaren beherakada orokorra; 4tik 5,5 puntu artean murriztu da Bilbon, Ezkerraldean eta Debagoienera, eta Aiaraldean 9,9 puntura heldu da. 4 puntutik 5era arteko murrizketa beste eskualde batzuetan ere eman da, okupazioa EAEko batez bestekoaren antzera jaitsi denetan, Gasteizen, Donostialdean eta Tolosa-Goierrin, esaterako.

Hori azaltzen duen faktore nagusia eskualde horietan 16 eta 64 urte bitarteko biztanleriaren egonkortasuna da, batez ere Gasteizen eta Tolosa-Goierrin; aldiz, Debagoienera, Bilbon eta Ezkerraldean beherakada handiak gertatu dira. Aiaraldeko okupazio-koefizientearen beherakada handia, 2011-2013 aldian enplegu-krisiak gehien eragindako eskualdeetako bat izanik, adin aktiboan dagoen biztanleriaren egonkortasunarekin lotuta dago.

Okupazio-koefizientearen beherakada txikiak $-1,6$ eta $2,9$ puntu artekoak— Eskuinaldean, Durangaldean eta Bizkaia-Kostan eman dira, baita Debabarrenean ere. Eskuinaldean izan ezik, horiek dira 2007tik 2013ra bitarte okupazio galera txikiak izan duten eskualdeetako batzuk. Eskuinaldeko okupazioaren beherakada erlatibo handiena —EAEko batez bestekoaren antzerako beherakada izan du—, zati batean orekatzen da eskualde horretan 16 urtetik 64 urtera bitarteko biztanleriaren beherakada nabarmenarekin. Faktore horri esker, okupazio-koefizientearen beherakada absolutua, alderatuta, txikiagoa da.

Okupazio-koefizienteen eskualdekako sailkapenean, joera horien eragin negatibo nagusiek Bilboko guneari eta Aiaraldeari eragiten diete. Alde batetik, Bilbo eta Ezkerraldeko okupazio-koefizientearen beherakada EAEko batez bestekotik gertu edo berau baino handiagoa izanik, bi eskualdeok EAEko batez bestekoaren oso azpitik daude (% 61,4 eta % 59,7; EAE osokoa % 63,7 da). Ezkerraldeko koefizientea, gainera, % 60aren azpitik dago 2013an, aurretik egoera hori Bilbon baino ez zen eman, 2005 urtearen ondoren. Eskuinaldea EAEko batez bestekotik gertuago badago ere, bertako koefizientea ere batez bestekoaren azpitik dago, % 63koa baita.

Bestalde, Aiaraldeak pairatzen duen okupazio-eraginaren ondorioz, Bilbo guneko hiru eskualdeen egoera bera dauka. 2007an EAEko batez bestekoa baino 3 puntu handiago izatetik, % 71, koefizientea % 61,1era jaitsi zen 2013an, eta azken urte horretan Ezkerraldeko koefizientea baino ez zuen gainditu.

Gainerako euskal eskualdeak EAEko okupazioaren batez bestekoaren gainetik daude. Gune batzuk EAEko batez bestekora 2007ko egoera onenetan hurbiltzen baziren (Gasteiz eta, hein txikiagoan, Donostialdea, Tolosa-Goierrin eta Debagoiena), beste batzuek batez bestekoari dagokionez onera egin dute (Bizkaia-Kosta, Durangaldea eta Debabarrena).

16-64 urteko biztanleriaren okupazio-koefizientearen bilakaera, eskualdearen arabera.
1993-2013 aldia
 (%-tan)

Eskualdea	Okupazio-koefizientea								
	1993	1997	2001	2003	2005	2007	2009	2011	2013
Gasteiz	52,0	58,6	67,2	69,1	69,4	69,2	65,5	64,4	64,4
Aiaraldea	48,1	54,5	63,0	62,4	66,4	71,0	65,0	67,8	61,1
Eskuinaldea	45,9	48,4	57,7	58,6	64,5	65,9	63,3	63,5	63,0
Bilbo	45,1	47,7	57,3	60,3	61,9	65,4	64,4	59,5	61,4
Ezkerraldea	41,0	44,4	55,3	58,0	62,0	65,2	63,5	61,4	59,7
Bizkaia-Kosta	50,4	54,7	60,5	64,9	65,0	67,1	65,2	63,6	65,3
Durungaldea	48,3	51,4	59,9	64,7	66,2	69,4	63,9	65,5	67,3
Donostialdea	48,6	53,7	63,7	66,0	69,8	70,8	67,9	67,2	65,9
Tolosa-Goierri	46,5	54,5	60,3	67,5	72,6	72,6	67,4	69,1	67,4
Debagoiena	49,6	57,5	65,1	70,9	72,1	72,2	66,7	68,9	67,0
Debarrena	46,2	51,8	62,9	67,2	64,0	68,0	62,6	65,4	66,4
Guztira	46,6	51,1	60,5	63,4	66,1	68,1	65,2	64,1	63,7

Datu absolutuak begiratuta, okupazioaren beherakada hirigune handietan kontzentratu da gehien, bereziki Bilbon, Ezkerraldean eta Donostialdean

2007tik 2013ra bitarte galdutako 84.701 okupazio garbien barne-banaketari erreparatuta, % 43 Bilbo eta Ezkerraldeari dagokio. Proportzio hori % 50,7ra igotzen da Eskuinaldea ere barne hartzen badugu. Beste % 21,6 Donostialdeari dagokion, % 10,1 Gasteizi, % 9,2 gainerako Gipuzkoari, % 5 Bizkaia-Kosta eta Durungaldeari eta % 3,4 Aiaraldeari.

2005 urteari dagokionez, okupazioaren esparruan gune gutxikorretan galdutako 65.638 okupazioen % 48,6 Bilbo guneko hiru eskualdeetan banatzen da, % 23,6 Donostialdean eta % 11,7 Gasteizen. 2005etik 2007ra bitarteko Debarrenen eta Tolosa-Goierriko krisiak beherakadari % 12,7ko ekarpena egin dio, eta Gasteizen erregistratutako beherakada gainditu du. Gainerako % 3,5a Aiaraldeari eta Debarrenari dagokie. 2005arekin alderatuta, Durungaldeak eta Bizkaia-Kosta 3.714 okupazio garbi berria eman dituzte 2013an.

Beraz, Bilbo, Ezkerraldea eta Donostialdea dira enpleguaren beherakadaren erdigunea, 2007-2013 aldiko okupazioaren galera absolutuaren % 64,6 jaso baitute.

6. Modu jarraituan lan egiten duen biztanleriaren garrantziak ere behera egin du

Okupazioaren beherakada orokorrekin batera, azken hamabi hilabeteetan modu jarraituan lan egin duen biztanleria landunaren proportzioak ere behera egin du. Adierazle hori % 60,9 jaitsi zen 2007an, 16 eta 64 urte bitarteko biztanleria guztiari dagokionez, % 59,4 2009an, % 57,4 2011n eta % 57 2013an; 2011tik aurrera 2005eko % 57,8tik behera gelditu da.

2007tik 2013ra bitartean, modu jarraituan lan egin duen biztanleria landunaren bolumena % 8,7 jaitsi da, 868.793 pertsona izatetik 2011n 792.876 izatera pasatu baita; kopuru hori 2005ekoa (828.459) baino nabarmen txikiagoa da zenbaki absolutuetan.

Hala ere, azpimarratu behar da 2013ko adierazlea 2010eko % 57,5ekoarena baino sei hamarren txikiagoa dela. Beraz, 2010etik aurrera, 2009tik 2010era bitartean hautemandako okertze-joera gogorra amaitu da; adierazlean ia 2 puntuko jaitsiera izan zen, 2007-2009 biurtekoan hautemandako 1,6koa baino handiagoa.

Beste alderdi hobe da modu jarraituan lan egin duen biztanleria landunaren ehunekoak handiagoa izaten jarraitu duela 2011n 2001-2003 aldian izandakoa baino (% 52,3 2001ean, eta % 53,6 eta % 53,7 artekoa, 2002an eta 2003an); modu jarraituan lanean diharduen biztanleria landuna 750.000 pertsona ingurukoa izan da mendearen hasierako lehen urteetan.

16-64 urteko biztanleria, azken urtean lanean eman duen denboraren arabera. 2005-2013 aldia

(Datu absolutuak eta 2005-2013 hazkundearen ehunekoak)

Lanean emandako denbora	Absolutuak					Hazkundearen ehunekoa 2007/2013
	2005	2007	2009	2011	2013	
12 hilabete	828.459	868.793	862.015	828.397	792.876	-8,7
9-11 hilabete	49.469	42.164	41.117	48.653	36.007	-14,6
6-8 hilabete	51.892	39.947	46.790	47.800	41.699	4,4
< 6 hilabete	80.830	74.649	82.762	82.791	87.213	16,8
Batere ez	422.954	400.407	419.256	435.191	433.182	8,2
Guztira	1.433.604	1.425.959	1.451.941	1.442.831	1.390.977	-2,5

16-64 urteko biztanleria, azken urtean lanean eman duen denboraren arabera. 2005-2013 aldia

(% bertikalak)

Lanean emandako denbora	2005	2006	2007	2009	2010	2011	2013
12 hilabete	57,8	58,6	60,9	59,4	57,5	57,4	57,0
9-11 hilabete	3,5	3,9	3,0	2,8	3,9	3,4	2,6
6-8 hilabete	3,6	3,5	2,8	3,2	3,4	3,3	3,0
< 6 hilabete	5,6	5,5	5,2	5,7	5,6	5,7	6,3
Batere ez	29,5	28,6	28,1	28,9	29,6	30,2	31,1
Guztira	100	100	100	100	100	100	100

2007tik 2013ra bitartean 5,5 puntu baino gehiagoko beherakadarekin, 16 eta 64 urte bitarteko biztanlerian modu jarraituan lan egin duen biztanleriaren proportzioan gehien behera egin dutenak Gasteiz, Aiaraldea eta Tolosa-Goierri izan dira. Modu jarraituan lan egin duen biztanleriaren proportzioan jasandako beherakada nabarmena izan da ere, 4 eta 5 puntu artekoan, Bilbo inguruko hiru eskualdeetan eta Durangaldean.

Nabarmenezkoa bada ere, beherakada hori txikiagoa izan da Donostialdean (-2,2 puntu) eta Debagoienean (-2,7 puntu 2005etik 2013ra bitartean). Oso txikia da, puntu 1 baino zertxobait handiagoa, Bizkaia-Kostan eta Debabarrenean.

Modu jarraituko okupazioaren garrantzi erlatiboaren galera orokorra gertatu den honetan, aldakuntza horiei lotutako aldaketa nagusia da Arabako bi eskualdeen egoeraren okertzea. Eskualde horiek adierazle horretan EAEko batez bestekoaren oso gainetik zeuden 2007an, baina batez bestekoaren azpitik kokatu ziren 2013an, eta urte horretan Bilbo eta Eskuinaldearen erregistroa gainditu zuten. Aldiz, Tolosa-Goierri, modu jarraituan lanean ari den biztanleriaren proportzioa EAEko batez bestekoaren oso gainetik mantendu da 2013an.

Azken urtean modu jarraituan lanean jardun duen 16-64 urteko biztanleria, eskualdearen arabera.
2005-2013 aldia

(16-64 urteko biztanleriaren ehunekoak)

Eskualdea	2005	2007	2009	2011	2013	2007/2013 aldaketa	2005/2013 aldaketa
Gasteiz	59,8	62,6	59,1	58,7	56,3	-6,3	
Aiaraldea	59,3	62,5	59,4	62,1	55,6	-6,9	
Eskuinaldea	56,8	60,6	58,6	56,0	56,6	-4,0	
Bilbo	53,9	58,5	59,4	52,4	54,1	-4,4	
Ezkerraldea	52,0	58,2	57,7	54,4	53,2	-5,0	
Bizkaia-Kosta	57,3	58,7	60,1	56,2	57,9	-0,8	
Durangaldea	59,7	63,8	57,5	59,4	59,6	-4,1	
Donostialdea	61,4	62,4	62,0	61,0	60,2	-2,2	
Tolosa-Goierri	65,9	65,9	59,1	62,7	60,3	-5,6	-5,6
Debagoiena	65,1	63,6	60,5	61,6	62,4	-1,2	-2,7
Debabarrena	58,9	61,2	54,9	58,0	60,0	-1,3	
Guztira	57,8	60,9	59,4	57,4	57,0	-3,9	

Okupazioaren beherakadaren sektorekako eremuak

7. 2011tik 2013ra, okupazioaren beherakadaren erritmoa oso altu mantendu da eraikuntzan, eta industriaren egoerak okerrera egin du

EJSN-99ren arabera, 2011tik 2013ra bitartean, bere horretan jarraitu du okupazioaren bilakaera txarrak zerbitzu-arloko bez bestelako sektoreetan; zehazki, lehen sektorea, industria eta eraikuntza batuta, okupazioaren % 6,9 galdu dute.

**16-64 urteko biztanleria landunaren bilakaera, sektore eta jarduera-adar bateratuaren arabera
2009-2013 aldia**

(Datu absolutuak, % bertikalak eta 2009-2013ko aldakuntzaren ehunekoak)

	Kopuru absolutuak						Aldakuntzaren ehunekoak		
	2009		2011		2013		2009/ 2011	2011/ 2013	2009/ 2013
Jarduera-adarra	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.			
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA	12.923	1,4	11.170	1,2	11.671	1,3	-13,6	4,5	-9,7
Manufaktura-industria	42.633	4,5	41.309	4,5	38.242	4,3	-3,1	-7,4	-10,3
Industria metalikoa	129.443	13,7	130.035	14,1	125.819	14,2	0,5	-3,2	-2,8
Bestelako industriak	43.621	4,6	38.572	4,2	37.564	4,2	-11,6	-2,6	-13,9
INDUSTRIA	215.697	22,8	209.915	22,7	201.625	22,8	-2,7	-3,9	-6,5
ERAIKUNTZA	80.538	8,5	64.952	7,0	52.982	6,0	-19,4	-18,4	-34,2
Merkataritza	131.907	13,9	129.391	14,0	124.117	14,0	-1,9	-4,1	-5,9
Ostalaritza	56.166	5,9	48.880	5,3	52.915	6,0	-13,0	8,3	-5,8
Garraioa	48.117	5,1	47.317	5,1	37.898	4,3	-1,7	-19,9	-21,2
Informazioa eta komunikazioak	28.275	3,0	23.989	2,6	24.657	2,8	-15,2	2,8	-12,8
Finantza-erakundeak, aseguruak	23.341	2,5	22.597	2,4	19.553	2,2	-3,2	-13,5	-16,2
Zerbitzu profesionalak	42.378	4,5	47.544	5,1	45.188	5,1	12,2	-5,0	6,6
Zerbitzu osagarriak	46.307	4,9	46.325	5,0	45.419	5,1	0,0	-2,0	-1,9
Herri-administrazioa	50.551	5,3	49.641	5,4	47.101	5,3	-1,8	-5,1	-6,8
Hezkuntza, osasuna eta gizarte-zerbitzuak	148.964	15,7	159.871	17,3	155.600	17,6	7,3	-2,7	4,5
Jolas- eta elkarte-jarduerak	19.700	2,1	21.849	2,4	21.448	2,4	10,9	-1,8	8,9
Bestelako zerbitzuak	17.242	1,8	15.949	1,7	16.698	1,9	-7,5	4,7	-3,2
Etxe-zerbitzua	24.668	2,6	24.904	2,7	29.383	3,3	1,0	18,0	19,1
ZERBITZUAK	637.615	67,3	638.257	69,1	619.978	70,0	0,1	-2,9	-2,8
Sailkatu gabeak	486	,1	0	,0	0	,0			
Guztira	947.259	100,0	924.295	100,0	886.256	100,0	-2,4	-4,1	-6,4

Oharra: EJSN-2009an oinarritutako sailkapena



16-64 urteko landunen bilakaera, sektorearen eta jarduera-adarraren arabera. 2001-2013 aldia
 (Datu absolutuak, urtetik urterako batez besteko hazkunde-tasaren ehunekoa eta hazkundearen ehunekoa 2007-2013 aldian)

	Kopuru absolutuak							Hazkunde-tasa						Aldakuntzaren ehunekoa 2007/2013
	2001	2005	2007	2009	2010	2011	2013	2001/ 2005	2005/ 2007	2007/ 2009	2009/ 2010	2010/ 2011	2011/ 2013	
Jarduera-adarra	2001	2005	2007	2009	2010	2011	2013							
NEKAZARITZA/ARRANTZA	20.652	15.082	15.004	15.131	13.883	12.787	14.083	-7,6	-0,3	0,4	-8,2	-7,9	4,9	-6,1
Manufaktura-industria	55.278	49.279	51.963	42.092	42.673	40.598	34.917	-2,8	2,7	-10,0	1,4	-4,9	-7,3	-32,8
Industria metalikoa	157.357	159.550	163.563	133.854	133.795	135.562	132.251	0,3	1,2	-9,5	0,0	1,3	-1,2	-19,1
Beste industria batzuk	41.364	40.965	43.098	37.285	34.003	33.660	32.231	-0,2	2,6	-7,0	-8,8	-1,0	-2,1	-25,2
INDUSTRIA	253.999	249.794	258.625	213.230	210.470	209.819	199.399	-0,4	1,8	-9,2	-1,3	-0,3	-2,5	-22,9
ERAIKUNTZA	76.809	86.373	88.671	79.332	71.118	63.602	52.369	3,0	1,3	-5,4	-10,4	-10,6	-9,3	-40,9
Merkataritza	111.257	131.670	129.105	135.720	130.085	131.218	125.823	4,3	-1,0	2,5	-4,2	0,9	-2,1	-2,5
Ostalaritza	45.667	47.770	50.579	55.787	53.590	48.880	52.915	1,1	2,9	5,0	-3,9	-8,8	4,0	4,6
Garraioak eta komunikazioak:	55.320	63.889	61.923	59.114	56.327	54.552	45.250	3,7	-1,6	-2,3	-4,7	-3,2	-8,9	-26,9
Finantza-erakundeak	20.475	21.672	20.708	23.186	23.065	22.597	19.553	1,4	-2,2	5,8	-0,5	-2,0	-7,0	-5,6
Enpresetarako zerbitzuak	71.811	89.596	94.455	98.159	104.909	103.630	101.115	5,7	2,7	1,9	6,9	-1,2	-1,2	7,1
Herri-administrazioa	45.439	45.101	50.990	50.978	51.934	49.641	47.101	-0,2	6,3	0,0	1,9	-4,4	-2,6	-7,6
Hezkuntza, osasuna eta gizarte-zerbitzuak	103.603	126.063	135.761	148.203	151.846	160.548	155.003	5,0	3,8	4,5	2,5	5,7	-1,7	14,2
Bestelako zerbitzuak	31.702	46.190	40.855	43.214	42.527	42.116	44.261	9,9	-6,0	2,8	-1,6	-1,0	2,5	8,3
Etxe-zerbitzua	25.077	24.979	24.282	24.719	27.461	24.904	29.383	-0,1	-1,4	0,9	11,1	-9,3	8,6	21,0
ZERBITZUAK	510.353	596.931	608.657	639.080	641.744	638.086	620.405	4,0	1,0	2,5	0,4	-0,6	-1,4	1,9
Sailkatu gabeak	0	0	0	486	484	0	0							
Guztira	861.814	948.180	970.957	947.259	937.701	924.295	886.256	2,4	1,2	-1,2	-1,0	-1,4	-2,1	-8,7

Oharra: EJSN-93an oinarritutako sailkapena

2011-2013 aldiko beherakada handienak eraikuntzan (% -18,4) eta manufaktura-industrian (% -7,4) gertatu dira. Hala ere, okupazioaren beherakada industria-adarretara ere hedatu da (% -3,2 industria metalikoan eta % -2,6 gainerako adarretan). Orotara, industriak bere okupazioaren % 3,9 galdu du biurteko horretan. Datu horiek ikusita, krisiaren bigarren faseak eragin handia izan du EAEko eraikuntzan eta industrian.

Eraikuntzak okupazioaren % 40,9 galdu du 2007 eta 2013 artean

EJSN-93ren arabera, okupazioa urteko batez beste % 5,4 jaitsi bazen 2007tik 2009ra bitartean, eraikuntzaren sektoreko okupazio-galerak urteko batez beste % 10,5 jaitsi zen 2009tik 2011ra bitartean. Hala ere, bere horretan jarraitzen du urteko batez beste % 9,3ko beherakada-erritmoak 2011tik 2013ra bitartean. Osotasunean, 2007tik 2013ra bitartean, eraikuntzaren sektorean 36.302 okupazio galdu ditu, 2007an zeuden okupazioen % 40,9. Datu erlatiboari erreparatuta, eraikuntza da krisiak gehien kaltetu duen sektorea.

Baina industria da, datu absolutuen arabera, okupazioa gehien murriztu duen sektorea

Industriaren sektorean, gertatu berri den bilakaerak atzerakada nabarmena eragin du, 2010-2011 aldian hauteman zitekeen hobekuntzari amaiera emanez. 2007tik 2009ra bitartean okupazioak nabarmen behera egin ostean –urteko batez besteko erritmoa % 9,2koa zen–, industriako enpleguaren dinamikak noranzkoa aldatu duela dirudi; hala, 2009tik 2010era % 1,3 galdu zuen eta % 0,3 2010-2011 aldian. Industria metalikoak ere gora egin zuen (% +1,3). 2011tik 2013ra bitartean, aldiz, hobera egite hori eten, eta okupazioan urteko batez beste % 2,5eko galerak izan dituen, 2009 eta 2011 artean ikusitako urteko batez bestekoaren ginetik (% -0,8).

Izan ere, industria da, datu absolutuei erreparatuta, krisia gehien pairatu duen sektorea, 59.225 okupazioa galdu baitut, 2007an zeudenen % 22,9. Mende hasieran zeuden okupazioarekin alderatzen badugu, krisiak industrian izan duen eragina are azpimarragarriagoa da, 2001ean baino 54.600 okupazio gutxiago baititu, eraikuntzari dagozkion galeren bikoitza baino handiagoa (-24.440 okupazio). Hala ere, 2001etik 2013ra bitarteko zifra datu erlatiboetan alderatuta, eraikuntzari dagokio okupazioaren beherakada erlatibo handiena (% -31,8, industriaren % -21,5aren alloan).

Industriaren eta eraikuntzaren ildo parekoan, nekazaritza eta arrantzako okupazioak beherako lerroa islatzen du epe luzera, eta 2001etik aurrera okupazioa nabarmen jaisten ari den sektorea dela erakusten du. 2013an, mende hasieran zegoen okupazioaren % 31,8 galdu du (-6.570 okupazio).

8. Azken urteotan, okupazio-galera indartu eta zerbitzuen sektorera hedatu da

2010-2011 aldiko daturik okerreana enpleguaren krisia zerbitzuen sektorera hedatzearekin lotuta dago. 2007 urtetik lehenengo aldiz, EAEn sektore horretako okupazioak behera egin du, % 0,6, EJSN-93ren arabera. Bilakaera negatibo hori indartu egin da 2011tik 2013ra bitartean, biurteko horretan hirugarren sektorearen okupazioa urteko batez beste % 1,4ko erritmoan jaitsi baita. 2010 urtetik aurrerako galerek hein handi batean orekatzen dituzte krisiaren lehen fasean oraindik ere begi bistakoak ziren gorakadak; 2007tik 2009ra urteko batez beste % 2,5 hazi zen eta 2009tim 2010era % 0,4. Horren emaitza, 2013 amaieran, zerbitzu-sektorearen okupazioak 2007koa baino % 1,9 handiagoa dela da (+11.748 okupazio).

Zerbitzuetako enpleguaren hazkunde mugatuaren errealitate hori, hein handi batean, okupazio-galera pixkana sektorearen adar ezberdinetara hedatu izanaren emaitza da. 2007tik 2013ra bitarte, epe ertain eta luzeko okupazioaren joera hedakorra etxeko zerbitzuan baino ez da mantendu; adar horren okupazioa % 21 hazi zen 2007tik 2013ra bitarte.

Garraio eta komunikazioen adarrek egiturazko krisia pairatu dute

2007-2009 alditik aurrera zerbitzutakoak ez dien sektoreen okupazio beherakada hasieratik hedatu da garraio eta komunikazioen adarretara. Horietan, gainera, enpleguaren galera pasa den mendearen erdialdetik gertatu da. Horrez gain, jarduera-eremu horretan okupazioaren beherakada indartu besterik ez da egin krisiak aurre egin ahala, eta 2005etik 2007ra urteko batez beste % 1,6ko galera izatetik, % 2,3ra 2007tik 2009ra, % 3,9 2009tik 2011ra eta % 8,9 izatera igaro da 2011tik 2013ra.

Osotasunean, adar-talde horrek okupazioaren % 26,9 galdu du 2007tik 2013ra bitartean; datu horiek eraikuntzaren datu erlatiboek baino ez dituzte gainditzen. 2007tik 2011ra bitartean 16.674 okupazio galdu dira (18.640, beherakadaren abiapuntu 2005 urtea hartuta).

2009/2010etik aurrera, krisia merkataritza, finantza-erakunde eta Herri Administrazioa hedatu da, eta okupazio garbiaren beherakada erraztu du 2007tik 2013ra bitarte

2009/2010etik aurrera, okupazioaren krisia merkataritzara, finantza-erakundeetara eta Herri Administrazioa hedatu da, eta 2011-2013 biurtekoan indartu egin da.

Merkataritzan –sektore honek gorabehera handiak izan ditu okupazioari dagokionez pasa den hamarkadatik aurrera–, 2009tik 2010era okupazioa % 4,2 murriztu ondoren, lanpostuen berreskuratze-aldia izan zuen, 201etik 2011ra bitartean pertsona landunen kopurua % 0,9 hazi baitzen. 2011tik 2013ra bitartean, hala ere, jarduera-adar horretan okupazioak urteko batez beste % 2,1 egin zuen behera.

2009 eta 2010 artean okupazioak % 1,9 gora egin ostean, Herri Administrazioak okupazioaren % 4,4 galdu zuen 2010etik 2011ra bitartean, eta beherakada hori luzatu egingo zen, urteko batez beste % 2,6ko erritmora 2011tik 2013ra bitartean.

Azkenik, finantza-erakundeek 2009an abiarazi zuten lanpostu-galeren prozesua, eta denborak aurrera egin ahal indartzen doa beherakada hori. 2009tik 2010era bitarte % 0,5 jaitsi ondoren, jarduera-esparru horrek okupazioa % 2 jaitsi du urtero 2010 eta 2011 artean, eta 2011tik 2013ra bitarte okupazioaren beherakada urteko batez beste % 7koa izan da.

Enpleguaren joera hedakorra 2009 edo 2010era bitarte mantendu bazen ere, jarduera-esparru horietan okupazio-galeraren balantze garbia eman da, 2007-2013 aldian. 2007ari dagokionez, okupazioaren murrizketa 2013an % 2,5era heldu da merkataritzan (-3.281 okupazio), % 5,6ra finantza-sektorean (-1.155 okupazio) eta % 7,6ra Herri Administrazioan (-3.888 okupazio).

2007tik 2013ra bitarte okupazio-aurrerapen garbiari eutsi bazaio ere, galerak zerbitzu-sektorearen gainerakora hedatu dira krisiaren azken fasean

2011tik 2013ra bitarte, okupazioaren beherakada nabarmen hedatu da kontratazioan goranzko joera mantendu zuten adar gehienetara. Dinamika horren ondorioz, enpresetarako zerbitzuetan urteko % 1,2, batez beste, jaitsi da 2010etik 2013ra bitarte, eta % 1,7 hezkuntza, osasuna eta gizarte-zerbitzuetan, 2011tik 2013ra bitarte. Hala ere, adar horiek, 2013 urtearen amaieran, 2013ko okupazioa baino altuagoa mantendu dute (% +7,1 eta % +14,2, hurrenez hurren).

Okupazioa suspertu egin da ostalaritza eta beste zerbitzuetan 2011tik 2013ra bitarte

2007tik 2013ra bitarte, okupazioaren gorakada garbia gertatu da beste zerbitzuen adarrean, % 8,3 hazi baita. 2009-2011 aldiko galeren ondoren (urteko % -1.3, batez beste), zerbitzuen esparru horren okupazioa suspertu egin zen 2011tik aurrera, eta urteko enpleguaren sorrera % 2,5 hazi zen.

Antzeko prozesua gertatu da, aldakuntza nabarmenagoak baditu ere, ostalaritzaren alorrean. 2009-2011 aldiko urteko batez beste % 6,4ko okupazio-beherakadaren ondoren, suspertu egin da 2011-2013 biurtekoan, eta urteko batez beste % 4 hazi da. Osotasunean, okupazioa ostalaritzan 2013an 2007koa baino % 4,6 handiagoa da.

9. Edonola ere, nabarmenenak dira industria-krisiaren garrantzi erabakigarria eta eraikuntzan gertatutako okupazio-galera

Osotasunean, krisiak okupazio-galeren multzo ezberdinak islatzen ditu adar-taldeen arabera, baita 2007-2013 aldiko biurtekoen arabera ere. Multzo horiek, guztira, 148.328 okupazio galdu dituzte. Hautemandako galeren barne-banaketa aztertuta, honako alderdi hauek dira aipatzekoak:

- * Okupazio-galeraren alor nagusia industria da, hautemandako galeren % 39,9 baitagozkio. Aipatzekoa da 2007-2009 aldiari dagokion % 30,6, 2011-2013 biurteko % 7 eta 2009-2011 aldiko % 2,3 zifren alboan. Krisiaren lehen biurtekoaren beherakada handia, hein handi batean, industria metalikoari lotuta dago (aldiz, manufaktura-industriaren garrantzi erlatiboa handiagoa da 2011tik 2013ra bitarte, eta gainerako industriarena 2009tik 2011ra bitarte).
- * Eraikuntzari dagokio hautemandako galeren % 24,5. Industriaren kasuan ez bezala, banaketa orekatua da denboran, nahiz eta zati nagusia, % 18,2, 2009-2013 aldiari lotuta egon.
- * Garraio eta komunikazioen sektoreri dagokio hautemandako galeren beste % 11,2. Adar-talde honek okupazioa pasa den hamarkadatik galdu duen arren, beherakadaren zati nagusia, % 6,3 2011-2013 biurtekoan gertatu da.

Guztira, industria, eraikuntza eta garraio eta komunikazioak dira 2007-2013 aldian okupazio-galeraren % 75,6 jaso dutenak.

Gainerako % 24,3an, ia osorik zerbitzuen sektoreari dagokionean, aipatzekoak dira honako alderdi hauek:

- * 2007-2013 aldiko okupazio-galeren % 8,6 merkataritza, ostalaritza eta beste zerbitzuen adarrek 2009tik 2011ra bitartean jasandako okupazioaren krisiari dagokio; proportzio hori % 12,3ra igo da 2011-2013 biurtekoan, merkataritza-adarrean okupazio-galera hedatu egin baita.
- * Beherakadaren % 6,4 Herri Administrazioari eta hezkuntza, osasuna eta gizarte-zerbitzuen adarrari dagokie; murrizketa horren % 5,5 2011tik 2013ra bitartean gertatu da.
- * Okupazio-galeren % 4,1 finantza-erakundeei eta enpresei emandako zerbitzuei dagokie, gehien bat 2011-2013 biurtekoan.

Antzemandako galerak zati batean orekatu dira multzo hedakorretan 2007-2013 aldian 63.627 okupazio sortu direlako; % 97,8 zerbitzuen sektorearekin lotutakoa da (62.205 okupazio sortu dituzte, aldi batzuetan nekazaritza eta arrantzaren garapenari lotutako 1.422 okupazioen alboan).

Okupazio-sorrera garbi nagusia hezkuntza, osasuna eta gizarte-zerbitzuen adarretako 2007tik 2011ra bitarteko enpleguaren hazkundearekin lotuta dago, 24.788 okupazio berri garbi sortu baitzituzten. Jarduera-esparru horietan balantze positiboari eusten zaio oraindik: 19.242 okupazio garbi 2007-2013 aldi osorako.

Bigarren hazkunde azpimarragarria merkataritza, ostalaritza eta beste zerbitzuek 2007-2009 aldian egindako da, 15.106 okupazio berri sortu baitzituzten. Beste 10.659 okupazio berri ostalaritzari eta beste zerbitzuei dagozkie, 2011-2013 aldian. Eraitza garbi modura, 2007-2013 artean jarduera-adar horiek 7.563 okupazio gehiago zeuden.

Okupazio gehien sortu duen hirugarren sektorea finantza-erakundeekin lotutakoa da, 2009 arte (+2.478 okupazio) eta, batez ere, enpresentzako zerbitzuekin lotutakoa, 2007-2011 aldian (+9.174 okupazio). Adar horiek 2013an baino 5.505 okupazio gehiago mantendu dituzte.

Aintzat hartutako okupazioaren galera eta irabazien eraitza garbia da EAEn 2007 eta 2013 artean 84.701 okupazio garbi galdu direla (63.627 okupazio berri adar eta aldi hedakorretan – 148.328 galera adar eta aldi gutxikorretan).

2007tik aurrera Euskadiko okupazioaren galera-prozesua ulertzeko funtsezko datua da eragin negatiboa duten prozesuen egonkortasunaren eta adar hedakorren bizitasun-galeraren arteko ezberdintasuna. Hala, multzo gutxikorrek beren aurkako eragina krisiaren biurteko ezberdinetan nahiko modu orekatuan mantentzen duten bitartean (57.555 okupazio galduta 2007 eta 2009 artean, 40.780 2009 eta 2011 artean eta 49.993 2011 eta 2013 artean), enplegua sortu duten multzoen eragin positiboa murrizten doa etengabe (33.857 okupazio berri 2007 eta 2009 artean, baina 17.816 2009 eta 2011 artean, eta 11.955 baino ez 2011 eta 2013 artean).

Krisi garaian, biztanleria landunaren aldakuntza, adar-talde eta biurtekoaren arabera

(Datu absolutuak eta 2007-2013 aldian okupazio-galeren guztizkotik adar-talde eta biurtekoaren arabera emandako aldakuntza negatiboak ehunekotan)

	2007-2009		2009-2011		2011-2013		2007-2013	
Adar- edo sektore-taldeak	Abs.	Galeren %	Abs.	Galeren %	Abs.	Galeren %	Abs.	Galeren %
Krisi-garaian beherakada jarraitua izan duten alorrak		38,8		17,6		20,9		77,2
Nekazaritza eta Arrantza			-2.344	1,6			-2.344	1,6
Industria	-45.394	30,6	-3.411	2,3	-10.420	7,0	-59.225	39,9
Eraikuntza	-9.340	6,3	-15.730	10,6	-11.233	7,6	-36.302	24,5
Garraioak eta komunikazioak	-2.810	1,9	-4.562	3,1	-9.302	6,3	-16.674	11,2
2009-2011 biurtekotik aurrera beherakada jarraitua izan duten alorrak		0,0		4,3		7,4		11,7
Merkataritza			-4.502	3,0	-5.395	3,6	-9.896	6,7
Finantza-erakundeak			-589	0,4	-3.044	2,1	-3.633	2,4
Herri-administrazioa	-12	0,0	-1.337	0,9	-2.539	1,7	-3.888	2,6
Gainerako adarrak		0,0		5,6		5,4		11,0
Enpresetarako zerbitzuak					-2.514	1,7	-2.514	1,7
Hezkuntza, osasuna eta gizarte-zerbitzuak					-5.546	3,7	-5.546	3,7
Gainerako adarrak			-8.305	5,6			-8.305	5,6
GUZTIRA		38,8		27,5		33,7	0	100,0
Okupazioaren galera adar gutxikorretan	-57.555		-40.780		-49.993		-148.328	
Okupazioaren hazkundera adar hedakorretan	33.857		17.816		11.955		63.627	
Aldaketa guztira	-23.698		-22.964		-38.038		-84.701	

Industria-bilakaeraren joera negatiboa goi-mailako teknologiko sektoreen okupazioan izandako ibilbide negatiboarekin dago lotuta, hein handi batean. Kasu honetan, baieztatu egin da krisi garaian zehar okupazio-beherakada azkartu egin dela, 2007-2009 aldian urteko batez beste % 0,8 jaistetik, % 1,5 jaistera igaro zen 2009-2011 aldian, eta 2011-2013 biurtekoan % 2,2koa izan da. 2007tik 2013ra bitartean, EAEn, okupazioaren % 8,7ko jaitsiera izan da goi-mailako teknologia behar duten sektoreetan.

16-64 urteko landunen bilakaera goi-mailako kalifikazioko sektoreetan, okupazio-sektorearen arabera. 2001-2013 aldia

(Datu absolutuak, urtetik urterako batez besteko hazkunde-tasaren ehunekoa eta hazkundearen ehunekoa 2007-2013 aldian)

Sektore-mota	Kopuru absolutuak						Hazkunde-tasa					Hazkundearen ehunekoa 2007/2013
	2001	2005	2007	2009	2011	2013	2001/2005	2005/2007	2007/2009	2009/2011	2011/2013	
Goi-teknologia	111.185	110.827	118.277	116.495	113.003	107.995	-0,1	3,3	-0,8	-1,5	-2,2	-8,7
Goi-mailako prestakuntza	175.370	217.398	232.665	248.083	265.300	259.283	5,5	3,5	3,3	3,4	-1,1	11,4
Ezagutza-intentsitate handia	224.943	273.326	285.861	304.600	319.232	306.011	5,0	2,3	3,2	2,4	-2,1	7,0
Goi-mailako kalifikazioa	314.716	364.967	383.384	393.395	408.455	393.308	3,8	2,5	1,3	1,9	-1,9	2,6
Gainerakoak	547.098	583.213	587.573	553.864	515.839	492.949	1,6	0,4	-2,9	-3,5	-2,2	-16,1
Guztira	861.814	948.180	970.957	947.259	924.295	886.256	2,4	1,2	-1,2	-1,2	-2,1	-8,7

Oharra: EJSN-93an oinarritutako sailkapena

10. Krisiaren sektorekako eragina EAEko eskualdeetan

Industria-faktorea erabakigarria da Araba eta Gipuzkoako eskualdeetan (Debabarrenan izan ezik), baita Durangalde eta Bizkaia-Kostan ere

Industriako enpleguaren beherakada erabakigarria izan da 2007-2013 aldiko krisian, antzemandako beherakadaren zati handiena jasotzeaz gain, prozesu baten benetako abiapuntu izan baita, ondoren eraikuntzaren enpleguaren zati baten galera eta, beraz, arazoa zerbitzuen sektore osora hedatzea eragin baitu.

2007-2013 aldian eskualdearen arabera biztanleria landunaren aldakuntzak aztertzean (2005-2013 Debagoiena eta Tolosa-Goierriren kasuan), industriaren okupazio-krisiak garrantzi nabarmena du Euskadiko eskualdekako okupazioaren bilakaeran. LME hamaika eskualdeetako zazpitan, 2013ra arte industrian hautemandako okupazio-galerak 2005/2007 aldian zegoen guztizko biztanleriaren % 5 inguru edo gehiago galdu da biztanleria landunean, eta, gainera, enpleguari dagokionez, gainerako sektore eta adar hedakorrei dagokien beherakada ere gaintu du. Industriako enplegu-krisiak krisiaren aurreko guztizko okupazioan izan duen eragina % 4,8koa da Donostialdea, eta % 7,5 ingurukoa Gasteiz, Bizkaia-Kosta eta Tolosa-Goierri. % 12tik % 13ra bitarteko maximoak lortu ditu Aiaraldean, Durangaldean eta Debagoiengan.

Industriako enplegu-krisiak aipatu eskualdeetako eragin antzekoa du Eskuinaldean eta Ezkerraldean, eta, beherakadak 2007ko okupazioaren % 5,9 eta % 6,4 da, hurrenez hurren. Kasu honetan, hala ere, beste sektore gutxikorretan hautemandako galerek batutako eragina handiagoa da. Debabarrenean eta Bilbon bakarrik, industriako okupazio-galerak, alderaketak eginda, 2007-2013 aldirako baxuak dira, 2007an zegoen guztizko biztanleriaren % 2 baino baxuagoa.

2005/2007 eta 2013 artean Euskadin industriako okupazioaren beherakadaren barne-banaketan, aipatzekoa da Eskuinaldeari, Durangaldeari, Aiaraldeari eta Debagoienari lotutako % 41,2. Donostialdeak eta Tolosa-Goierrik jaso dute galeren beste % 24,3, Gasteizek % 15,9, Bilbok eta Eskuinaldeak % 11,9 eta Bizkaia-Kostak % 6,8.

Azpimarratzekoa da, baita ere, eraikuntzaren krisiak Ezkerraldean eta Debabarrenean izandako eragina, garraio eta komunikazioek Bilbon izandakoak eta merkataritza, ostalaritza eta beste zerbitzuek Eskuinaldean eta Bizkaia-Kostan izandakoa

Industrian gertatutako enpleguaren galeren eragina aztertu gabe, eraikuntza ere erabakigarria izan da lurraldeko okupazioaren beherakadan; zazpi eskualdetan 2005-2007 aldiko guztizko okupazioaren gutxienez % 3ko beherakadak izan dituzte. Okupazioaren murrizketaren eragina % 3tik % 4ra bitartean kokatzen da Arabako eskualdeetan, Eskuinaldean, Bilbon eta Donostialdean. Maximoak jaso dira Debabarrenean (% -5,3) eta Ezkerraldean (% -7,1).

Azken kasu horretan, bi eskualde horietan baino ez da izan eraikuntza 2007tik 2013ra bitarteko guztizko okupazioaren beherakadaren faktore nagusia. Aldiz, Gasteizen, Aiaraldean eta Donostialdean industriako enpleguaren murrizketak izan du eragin handiena, eta Bilbon eta Eskuinaldean industria eta eraikuntza ez diren sektoreek eragin negatibo handiagoa dute. Bizkaiko hiriburuan garraio eta komunikazioen adarra izan da okupazio-galera handiena izan duena (% -4,4; eraikuntzan % -3,4 eta industrian % -1,8 izan du). Eskuinaldean, aldiz, nabarmentzekoa da merkataritza, ostalaritza eta beste zerbitzuen krisiak duen garrantzia (% -5eko beherakada; eraikuntzan % -3,7koa).

Testuinguru horretan, aipatzekoak diren beste okupazio-beherakadak Durangaldeko eta Tolosa-Goierriko garraio eta komunikazioen adarrei dagozkie (% -2,5 eta % -3,6), eta merkataritza, ostalaritza eta beste zerbitzuei Bizkaia-Kostan (% -3,3).

Industriaz beste, okupazioaren esparru gutxikorrenetan, nabarmentzekoa da eraikuntzaren beherakada Bilboko hiru eskualdeetan, okupazio-galeren % 54,9 jaso baitu (% 33,3 zuzenean lot daitezke Ezkerraldearekin). Eraikuntzako okupazio-galeraren beste % 33,1 Gasteiz eta Donostialdeari dagokie.

Hiriburuen hiru eskualdeek, bestalde, garraio eta komunikazioen adarren okupazio-galeraren % 67,1 jaso dute, eta zuzenean Bilbori lotzen zaio % 38,4. Durangaldeak eta Tolosa-Goierrik bildu dute jarduera-adar horren beherakadaren beste % 19,1eko zifra nabarmena.

Azkenik, egiaztatu egin da merkataritza, ostalaritza eta beste zerbitzuen adarrekin lotutako okupazio-galeren % 94,1 Bilbo guneko eskualdeetan eta Bizkaia-Kostan gertatu dela. 2007tik 2013ra bitarte, Eskuinaldeak eta Bizkaia-Kostak adar horien okupazioaren beherakada garbia izan duten eskualdeetan hautemandako galeraren % 52 jaso dute.

16-64 urteko biztanleria landunean aldakuntza, jarduera-sektore/adarraren arabera 2007tik 2013ra
(2007an biztanleria landunaren guztizkoaren %-tan)

Eskualdea	Industria	Beste esparru gutxikor batzuk	Esparru hedakorrak	Eraikuntza	Garraioak eta komunikazioak	Merkataritza, ostalaritza eta beste zerbitzuak	Beste adar batzuk	Guztira
Gasteiz	-7,5	-5,5	6,2	-3,9	-1,6	3,9	2,3	-6,9
Aiaraldea	-12,0	-3,6	1,2	-3,0	1,1	0,1	-0,6	-14,4
Eskuinaldea	-5,9	-10,6	7,5	-3,7	-1,9	-5,0	7,5	-8,9
Bilbo	-1,8	-8,9	0,5	-3,4	-4,4	-1,1	0,5	-10,3
Ezkerraldea	-6,4	-8,7	2,9	-7,1	-0,1	-1,6	2,9	-12,3
Bizkaia-Kosta	-7,3	-5,6	10,3	-1,5	-0,7	-3,3	10,3	-2,6
Durungaldea	-12,8	-3,3	11,1	-0,9	-2,5	6,9	4,1	-5,1
Donostialdea	-4,8	-4,6	1,1	-3,3	-1,4	1,0	0,1	-8,4
Tolosa-Goierri	-7,3	-7,0	6,8	-2,3	-3,6	-1,2	6,8	-7,5
Debagoiena	-13,0	-2,7	1,2	0,1	-1,3	1,1	-1,4	-14,5
Debabarrena	0,5	-7,2	1,8	-5,3	0,0	1,8	-1,9	-4,9
Guztira	-6,1	-5,5	2,8	-3,7	-1,7	0,3	2,6	-8,7

Tolosa-Goierri eta Debagoienaren kasuan, hasierako erreferentzia-data 2005 da, ez 2007

Okupazio-galeren banaketa, okupazio-esparru gutxikor nagusietan
2007tik 2013ra bitarte

(2007an biztanleria landunaren guztizkoaren %-tan)

Eskualdea	Industria	Eraikuntza	Garraioak eta komunikazioak	Merkataritza, ostalaritza eta beste zerbitzuak
Gasteiz	15,9	13,4	11,6	--
Aiaraldea	4,0	1,6	--	--
Bilbo Eskuinaldea	7,3	7,5	7,9	34,7
Bilbo	4,6	14,1	38,4	16,5
Ezkerraldea	18,5	33,3	1,3	25,6
Bizkaia-Kosta	6,8	2,3	2,3	17,3
Durungaldea	12,0	1,3	8,0	--
Donostialdea	17,8	19,7	17,2	--
Tolosa-Goierri	6,5	3,3	11,1	5,9
Debagoiena	6,7	--	2,4	--
Debabarrena	--	3,5	--	--
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0

Azpitarratzekoa da ia euskal eskualde guztietan sektore eta adar gutxikorretan, bereziki industrian, okupazio-galeren eraginak % 10etik gorako okupazio-beherakada eragin zezakeela, ekonomiaren hainbat sektoretan okupazioen gorakada eman izan ez balitz.

2005-2007 aldiko guztizko okupazioaren % 6,2 eta % 11,1 artean kokatutako zifrei dagokien okupazio-ekarpen positiboak, izan ere, % 10 baino gehiagoko galera-maila horren azpitik kokatzen ditu Gasteiz, Eskuinaldea, Bizkaia-Kosta, Durangaldea eta Tolosa-Goierri. Gorakada horiek, orokorrean, gainerako ekonomiarekin lotzen badira ere (enpresetarako zerbitzuak eta finantza-erakundeak, Herri Administrazioa eta Hezkuntza, osasuna eta gizarte-zerbitzuak, funtsean), eskualde gehienetan beste sektore gutxikor batzuek, batzuetan, eragin positiboa dute. Hala gertatzen da, eta modu esanguratsuan, merkataritza, ostalaritza eta beste zerbitzuen adarretan Gasteiz eta Durangaldea, bertan okupazioaren bilakaerari egindako ekarpena positiboa izan baita (eskualdearen 2007ko guztizko okupazioaren % +3,9 eta % +6,9, hurrenez hurren, Donostialdea, Debagoiena eta Debarreneko % 1 eta % 1,8 arteko zifren alboan=.

Okupazioaren bilakaeraren inguruko beste alderdi esanguratsu batzuk

11.Okupazioaren krisiak gehien eragindako kategoriak

Kualifikazio gutxien duten lanbide-taldeak

Lanbideari dagokionez, 2007-2013 aldian, okupazioaren bilakaera txarrena teknikariek baino kualifikazio-maila baxuagoa duten langileek, makinetako operadoreek eta biztanleria landun ez-kualifikatuak izan dute. Talde horren okupazioan, % 22,4ko galera izan da aipatu aldian, eta 2013ko okupazioa 2001ekoa baino % 15,2 baxuagoa izan da. Datu absolutuei dagokienez, 2007tik 2013ra bitarte 127.819 okupazio galdu dira lanbide-talde horietan.

Talde horri eragin dion okupazio-galerak % 34 gaintzen du 2007tik 2013ra bitartean Debako haraneko eskualdeetan. Galerak nabarmenak dira, baita ere, hasierako okupazioan, % 23,7tik % 27,4ra bitarte, Aiaraldean, Bilbon, Ezkerraldean, Durangaldean eta Tolosa-Goierriin. Esate baterako, Eskuinaldean, Bizkaia-Kostan eta Donostialdean % 18tik % 22,7ra bitarteko tasa dute. Gasteizen baino ez dira nabarmen txikiagoak (% -10).

16-64 urteko biztanleria landunaren bilakaera, lanbide/okupazioaren arabera. 2001-2013 aldia

(Datu absolutuak, 2007-2013 aldakuntzaren %-ak eta aldiko galeren banaketa)

	Kopuru absolutuak						Aldakuntzaren ehunekoa 2007/ 2013	Okupazio-galeren banaketa 2007/2013	
	2001	2005	2007	2009	2011	2013		Abs.	Galeren %
Lanbidea/okupazioa									
Zuzendari,	339.576	395.861	400.423	426.310	429.092	443.541	10,8		
teknikari eta administrazio- Beste langile batzuk	522.238	552.319	570.534	520.949	495.203	442.715	-22,4	-127.819	100
Lang. kualifikatuak eta makineria-erakundeak	422.415	441.214	448.934	419.476	403.725	357.365	-20,4	-91.568	71,6
Lang. ez-kualifikatuak eta beste batzuk	99.823	111.105	121.600	101.472	91.478	85.350	-29,8	-36.251	28,4
GUZTIRA	861.814	948.180	970.957	947.259	924.295	886.256	-13,8	-127.819	100
Beste langileen %	60,6	58,3	58,8	55,0	53,6	50,0			

Oharra: LES-94an oinarritutako sailkapena

16-64 urteko biztanleria landunaren bilakaera, lanbidearen eta eskualdearen arabera. 2007-2013 aldia
(Datu absolutuak, 2007-2013ko aldakuntzaren ehunekoa eta jaitsieraren banaketa 2007-2013 artean)

Eskualdea	Kopuru absolutuak		Aldakuntzaren ehunekoa 2007/2013	Jaitsieraren banaketa 2007-2013 aldian (%-tan)
	2007	2013		
Gasteiz	71.828	64.617	-10,0	5,6
Aiaraldea	12.930	9.818	-24,1	2,4
Bilbo Eskualdea	33.187	25.666	-22,7	5,9
Bilbo	72.941	55.636	-23,7	13,5
Ezkerraldea	113.765	83.105	-27,0	24,0
Bizkaia-Kosta	31.066	24.470	-21,2	5,2
Durantaldea	38.958	28.715	-26,3	8,0
Donostialdea	123.669	101.409	-18,0	17,4
Tolosa-Goierri	36.237	26.311	-27,4	7,8
Debagoiena	20.139	13.145	-34,7	5,5
Debarrena	15.814	9.823	-37,9	4,7
Guztira	570.534	442.715	-22,4	100,0

Aztertutako lanbide-taldeari eragiten dion okupazioaren beherakadak EAEko biztanleria landunean duen garrantziaren galera nabarmena ematen du aditzera, 2001-2007 aldian % 58,3 eta % 60,6 artean egotetik, 2009an % 55 izatera, 2011n % 53,6 eta 2013an % 50 izatera igaro baita.

Aldaketa hori, lanbide-talde horri eragiten dion okupazio-beherakadarekin ez ezik, zuzendaritza, teknikari eta administrazioko langileekin lotutako okupazioaren joera hobeagorekin ere lotzen da. Izan ere, 2007-2013 aldian, 43.118 pertsona gehiago zeuden biztanleria mota horri dagokion okupazioan, eta 2007ko zifrari dagokionez % 10,8 hazi da. Hazkunde nabarmenagoa da 2001eko egoerarekin alderatzen bada, lanbide horietan pertsona landunen kopurua mende hasierakoarekin alderatuta % 30,6 hazi baitzen (+103.966 okupazio garbi, datu absolutuetan).

Sektore pribatuaren soldatapeko biztanleria

Datu erlatiboari erreparatuta biztanleria autonomoaren eta familia-laguntzen murrizketa nabarmena bada ere (% -13,8, datu absolutuetan 15.279 okupazio galdu dira), kualitatiboki nabarmenagoa den 2007 eta 2013 arteko beherakada da sektore pribatuko soldatapeko biztanleriari gehien eragiten diona. Biztanleria horrek 77.098 pertsona galdu ditu, 2007an soldatapeko talde horren okupazioan zegoen % 11,5.

**16-64 urteko biztanleria landunaren bilakaera, lanbide-egoeraren arabera
2001-2013 aldia**

(Datu absolutuak, eta 2007-2013ko aldakuntzaren ehunekoak)

Lanbide-egoera	Kopuru absolutuak						Aldakuntza 2007/2013	
	2001	2005	2007	2009	2011	2013	Abs.	%-tan
Enplegatzailea/Kooperatibista	49.751	55.181	48.826	54.243	58.271	58.610	9.784	20,0
Autonomia/Familia-lag.	117.457	117.537	110.786	95.845	98.979	95.507	-15.279	-13,8
Sektore publ. soldatapekoa	116.396	129.710	138.296	145.108	146.440	136.188	-2.108	-1,5
Enpresa prib. soldatapekoa eta bestelakoak	578.211	645.752	673.049	652.063	620.605	595.951	-77.098	-11,5
Guztira	861.814	948.180	970.957	947.259	924.295	886.256	-84.701	-8,7

Sektore pribatuaren soldatapeko biztanleriaren beherakadak hein handi batean azaltzen du 2007-2013 aldiaren okupazio-beherakadaren guztizkoa. 2007ko guztizko okupazioari dagokionez, % 10eko beherakada izan du Aiaraldean, Bilboko hiru eskualdeetan, Durangaldean eta Debagoienera; % 8,9koa da oraindik ere Tolosa-Goierri. Galera murriztu bada ere, nabarmena da, % 4,9tik % 5,9ra bitartekoa, Bizkaia-Kostan eta Donostialdean. Gasteizen eta Debabarrenean baino ez da murriztu (% -2,8 eta % -1).

Sektore publikoaren soldatapeko okupazioaren gorakadak orekatu egiten ditu, hein batean, Bizkaia-Kostako beherakadak (% 3,9); hala ere, eragin negatiboa du Debabarrenean eta Gasteizen (% -5,5 eta % -2,3). Eskuinaldean, Durangaldean eta Tolosa-Goierri, aldiz, soldatapekoa ez den biztanleriak nabarmen egin du gora 2007ko guztizko okupazioari dagokionez, % 3tik % 4,2ra bitarte; ekarpena negatiboa da ere Gasteizen (% -1,8), Aiaraldean (% -4,3), Ezkerraldean (% -2,2) eta Donostialdean (% -2,4).

16-64 urteko biztanleria landunaren aldakuntza, lanbide-egoeraren arabera, 2007tik 2013ra
(2007an biztanleria landunaren guztizkoaren %-tan)

Eskualdea	Ez-soldatapekoak	Sektore publikoko soldatapekoa	Sektore pribatuko soldat. eta beste batzuk	Guztira	Soldatap. Pribatuak Beherakadaren banaketa 2007-2013 (%-tan)
Gasteiz	-1,8	-2,3	-2,8	-6,9	4,6
Aiaraldea	-4,3	-0,2	-9,8	-14,4	2,5
Bilbo Eskuinaldea	3,9	1,2	-14,0	-8,9	13,2
Bilbo	-0,2	-0,3	-9,8	-10,3	19,1
Ezkerraldea	-2,2	1,2	-11,3	-12,3	25,1
Bizkaia-Kosta	-0,6	3,9	-5,9	-2,6	4,2
Durangaldea	4,2	0,8	-10,1	-5,1	7,2
Donostialdea	-2,4	-1,2	-4,9	-8,4	13,7
Tolosa-Goierri	3,0	-0,7	-8,9	-6,6	6,0
Debagoiena	-0,2	0,1	-10,7	-10,8	4,1
Debabarrena	1,6	-5,5	-1,0	-4,9	0,3
Guztira	-0,6	-0,2	-7,9	-8,7	100

Enpresan antzintasun txikiena duen biztanleria

Krisiaren ondorioz, langileen oinarrizko egiturak egonkortu dira eta kontratazio berriak murriztu. Egungo okupazioan 5 urte baino gutxiago daramaten pertsonen proportzioa % 45,7koa zen 2003an, baina 2005 eta 2007an % 40ra jaitsi zen, eta etengabe egin du behera, 2013an % 31 izatera pasa baita. Bertan, okupazioan 2 urte baino gutxiagoa daraman biztanleriak egin du nabarmen behera, 2013an % 15m4 eta 2011n % 18,7.

16-64 urteko landunak, egungo okupazioan daramaten denboraren arabera. 2011 eta 2013 urteak (Ehunekotan)

Egungo okupazioan emandako denbora	2011		2013	
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.
< 2 urte	172.611	18,7	136.537	15,4
2-4 urte bitartean	141.737	15,3	138.178	15,6
5-9 urte bitartean	190.089	20,6	177.792	20,1
10-14 urte bitartean	140.263	15,2	149.335	16,9
15-19 urte bitartean	73.129	7,9	90.663	10,2
20 urte edo gehiago	206.465	22,3	193.752	21,9
Guztira	924.295	100,0	886.256	100,0

Egungo okupazioan 5 urte baino gutxiago daramatzaten 16-64 urteko landunen proportzioaren bilakaera, eskualdearen arabera 2001-2013 aldia (Ehunekotan)

Eskualdea	2001	2003	2005	2007	2009	2011	2013
Gasteiz	41,9	41,2	40,3	38,3	36,5	34,9	33,3
Aiaraldea	43,9	44,2	37,2	38,7	37,1	30,9	29,8
Bilbo Eskuinaldea	42,1	48,1	40,1	39,4	39,9	35,3	32,8
Bilbo	43,2	48,3	40,2	40,7	36,8	37,6	31,3
Ezkerraldea	47,4	52,0	45,0	43,5	38,6	35,3	32,1
Bizkaia-Kosta	40,0	43,2	40,2	40,4	30,5	31,0	30,9
Durantaldea	43,7	43,6	34,9	35,5	33,7	31,8	29,5
Donostialdea	43,2	44,6	37,8	43,0	35,6	32,3	30,4
Tolosa-Goierrri	43,0	45,6	37,1	39,4	35,4	33,3	26,9
Debagoiena	36,9	39,2	34,8	37,2	27,9	27,3	28,2
Debarrena	36,1	34,8	33,5	44,2	33,5	34,1	26,7
Guztira	43,1	45,7	39,7	40,9	36,1	34,0	31,0

Behin-behineko eta kontraturik gabeko biztanleria, 2009tik aurrera okupaziotik ateratako pertsona gehienak enpresan kontratu mugagabea dutenak diren arren

Enpresek langile berriak eskuratzeko aukerak murriztu izana oso lotuta dago ekoizpen-sistematik behin-behineko eta kontraturik gabeko langileen irteera-prozesuarekin. Ildo horretatik, krisiaren hasierako fasean, 2007tik 2009ra bitarte, ekoizpen-sistematik irteteko prozesuan soldatapeko biztanleria ez-mugagabea da gehiengoa. Hala, kontratu mugagaberik gabeko soldatapeko biztanlerian 56.075 okupazio galdu dira, eta dinamika hori, beraz, kontratu mugagabeko soldatapeko biztanleriaren 39.006 okupazio garbi berrien datuaren oso bestelakoa da.

Hala ere, okupazio-krisia kontratu mugagabea duen soldatapeko biztanleriara hedatu da; 68.506 pertsona 2009tik 2013ra bitarte. 2011 eta 2013 artean kontratu mugagabeko soldatapeko okupazioaren beherakadaren erritmoa 2009-2011 aldikoarekin alderatuta mugatzen bada ere (urteko % -2,3, batez beste, % 3,3arekin alderatuta), beheranzko joera nabarmena da aldi osoan zehar. Horren emaitza da 29.500 okupazio mugagabe galdu direla 2007ari dagokionez, urte horretan zeuden okupazioen % 4,9.

Kontratu mugagabeko soldatapekoen galera are nabarmenagoa izan da, azken hamarkadan okupazio mota horrek izan duen goranzko joerarekin eten duela kontuan hartzen bada; izan ere, 2001-2009 aldiko fase guztiak kontuan hartuta, % 2,8tik % 3,8ra bitarteko urteko hazkunde-erritmoak izan dira, batez beste. 2009ra bitarte kontratu ez-mugagabeko soldatapeko biztanleria landunaren hazkunde nabarmenak, hala ere, EAEk 2013an enpresan 2001ean baino % 16,6 soldatapeko biztanleria egonkor handiagoari eusten lagundu dio.

Aldiz, 2007 eta 2009 artean 56.075 pertsona baino gehiago ekoizpen-sistematik irten ostean, 2009-2011 aldiko behin-behineko biztanleria landunaren susperraldiaren ondore dator, berriz ere, kontratu mugagaberik ez duten soldatapekoen beherakada 2011 eta 2013 artean. Horren ondorioz, 2013an kontratu mugagaberik gabeko soldatapeko biztanleriaren zifra 2007koa baino % 23,3 txikiagoa da (% -21,9, alderaketarako 2011 urtea hartzen bada kontuan).

Izan ere, 2009tik aurrera kontratu mugagabea duen biztanleriaren egoerak okerrera egiten badu ere –2009-2013 aldiko okupazio-beherakada jasota–, kontratu mugagaberik gabeko soldatapeko biztanlerian krisiak izan duen eragina ukaezina da. 2007tik 2013ra bitarte, okupazioa galdu duten soldatapeko 77.273 pertsonen % 61,8k kontratu ez-mugagabea zuen.

Aldaketa horien ondorioz, okupazio ez-mugagabeak soldatapeko biztanlerian duen garrantziak behera egin du. 1997an % 35,3ko proportziora heldu ostean, garrantzia 2009ko % 18,8ra murriztu zen 2009an. 2009tik aurrerako kontratu mugagabeko okupazioaren bilakaera okerragoak 2013an portzentajeak gorantz egitea laguntzen badu ere, urte horretako % 21,5 2007ko % 25,4aren oso azpitik dago eta, are gehiago, 2001eko % 29,1etik.

16-64 urteko soldatapeko biztanleria landunaren bilakaera, kontratu motaren arabera. 2001-2013 aldia

(Datu absolutuak, urtetik urterako batez besteko hazkunde-tasaren ehunekoa eta hazkundearen ehunekoa 2007-2013 aldian)

	Kopuru absolutuak						Hazkunde-tasa					Hazkundearen ehunekoa 2007/2013
	2001	2005	2007	2009	2011	2013	2001/2005	2005/2007	2007/2009	2009/2011	2011/2013	
Kontratu mota												
Mugagabea	491.052	570.040	602.035	641.041	599.703	572.535	3,8	2,8	3,2	-3,3	-2,3	-4,9
Ez-mugagabea	201.223	201.104	204.973	148.898	166.348	157.200	0,0	1,0	-14,8	5,7	-2,8	-23,3
Guztira	692.275	771.144	807.008	789.939	766.051	729.735	2,7	2,3	-1,1	-1,5	-2,4	-9,6
Kontratu mugagaberik gabekoak (%)	29,1	26,1	25,4	18,8	21,7	21,5						

Kontratu mugagaberik ez duten 16-64 urteko soldatapekoen proportzioaren bilakaera, eskualdearen arabera 1993-2013 aldia (Ehunekotan)

Eskualdea	1993	1997	2001	2007	2009	2011	2013
Gasteiz	29,9	35,7	25,3	22,5	22,0	22,0	25,6
Aiaraldea	29,4	33,5	31,2	31,4	17,6	21,5	23,2
Eskuinaldea	22,5	25,9	31,2	21,1	11,7	20,3	19,0
Bilbo	22,8	28,8	25,2	26,1	21,4	23,3	21,2
Ezkerraldea	25,5	37,0	32,4	28,6	19,3	22,3	22,9
Bizkaia-Kosta	32,0	36,2	30,2	28,8	16,0	19,3	20,6
Durangaldea	30,7	34,6	30,3	21,0	19,4	21,8	22,4
Donostialdea	24,7	39,2	30,7	24,2	16,9	19,6	18,3
Tolosa-Goierrri	32,3	40,7	28,0	25,9	22,2	22,5	22,1
Debagoiena	28,4	42,3	31,9	30,2	16,6	27,7	27,3
Debarrena	23,5	36,0	22,3	29,9	23,9	27,8	20,9
Guztira	26,3	35,3	29,1	25,4	18,8	21,7	21,5

Soldatapeko biztanleria aktiboaren beherakadak jatorri ezberdinak ditu eskualdearen arabera, baina, orokorrean, soldatapeko bi modalitate nagusietatik bat da arrazoia. Beherakadaren oinarri nagusia, 2007ko guztizko okupazioaren % 6 inguru edo berau baino beherakada handiagoekin lotutakoa, behin-behineko kontratazioari dagokio, Aiaraldea, Bilbo, Eskuinaldea, Bizkaia-Kosta, Donostialdea eta Debarrena eskualdeetan. Bilbon, Ezkerraldean eta Bizkaia-Kostan, beherakada handi hori hasierako okupazioaren % 2,7tik % 4,8ra bitarteko galerekin batera gertatu da, eta hori kontratu mugagabea duen biztanleria landunaren murrizketarekin lotuta dago.

Aipatu guneetan ez bezala, kontratu mugagabeko soldatapeko biztanlerian okupazio-galerak garrantzi erlatibo handiagoa du –2007ko biztanleria landunari dagokionez % 6 baino gehiago jaitsi da– Gasteiz, Durangaldea eta Eskuinaldea eskualdeetan. Azken eskualde horretan, beherakada hori kontratazio ez-mugagabeari lotutako % 4,2ko murrizketa handiari ere lotuta dago.

Hasierako okupazioaren % 5eko beherakadarekin, Tolosa-Goierri eta Debagoiena dira soldatapeko biztanlerian kontratu mugagabe zein ez-mugagabeetan okupazioaren beherakada handia jasan dutenak.

Azpmarragarria da kontratu mugagabeko soldatapeko okupazioaren galerek gehien eragin dituzten hiru eskualdeek –Gasteiz, Eskuinaldea eta Durangaldea– jaso dutela EAEn 2007 eta 2013 artean hautemandako kontratu mugagabeko okupazio-galeraren % 56,8, eta Bilbo eta Ezkerraldearen % 29,4aren eta Tolosa-Goierri eta Debagoienaren % 12,2aren oso gainetik daude. Aldiz, behin-behineko eta kontraturik gabeko langileen murrizketaren % 68,8 Bilbo, Ezkerralde eta Donostialdeari dagokie.

16-64 urteko soldatapeko biztanleriaren aldakuntza, kontratu motaren arabera, 2007tik 2013ra
(2007an biztanleria landunaren guztizkoaren %-tan)

Eskualdea	Kontratu mugagabea	Aldi baterako kontratua edo kontraturik gabe	Guztira	Kont.Mugagabea Jaitsieraren banaketa 2007-2013 aldian (ehunekotan)	Kont. Ez-Mugagabea Jaitsieraren banaketa 2007-2013 aldian (ehunekotan)
Gasteiz	-6,4	1,2	-5,2	24,5	
Aiaraldea	-1,0	-8,6	-9,6	0,6	3,5
Bilbo Eskuinaldea	-8,1	-4,2	-12,3	18,1	6,1
Bilbo	-3,3	-6,1	-9,4	15,3	18,6
Ezkerraldea	-2,7	-7,1	-9,8	14,1	24,4
Bizkaia-Kosta	4,8	-7,1	-2,2		7,9
Durangaldea	-8,4	-0,9	-9,3	14,2	..1,0
Donostialdea	-0,1	-5,9	-6,0	1,0	25,8
Tolosa-Goierri	-4,6	-5,3	-9,8	7,3	5,6
Debagoiena	-5,5	-4,7	-10,2	5,0	2,8
Debarrena	2,1	-8,9	-6,8		4,3
Guztira	-3,0	-4,9	-8,0	100	100

Ez ditu beste talde batzuk barne hartzen

Lanaldi osoan lan egiten duen biztanleria, lanaldi murriztu edo partzialaren aurrerapena nabarmena bada ere

2007tik 2013ra bitartean, lanaldi osoko jardunaren garrantzi erlatiboa murriztu egin da. Modu jarraituko enplegua duen soldatapeko biztanleria landunean, lanaldi partzialeko jardunak goranzko joera nabarmena du: 2007an % 11,3 izatetik, 2011n % 14,4 izatera eta 2013an % 16,6 izatera igaro da.

Aldaketa hori, mende berrian lanaldi partzialeko enpleguaren etengabeko igoerarekin lotzeaz gain – 2007tik 2013ra bitarte % 32,2 hazi da–, lanaldi osoko enpleguaren beherakadarekin ere lotu behar da. Erreferentziako aldi horretan, okupazio mota horrek % 15,2 egin du behera. Lanaldi osoko enpleguaren beheranzko joera indartu egin da, gainera, krisi-garaian. 2007tik 2009ra bitarte urteko batez beste % 1,6 jaitsi ondoren, okupazio mota hori % 2,9 jaitsi zen 2009tik 2011ra bitarte eta % 3,7 2001tik 2013ra bitarte.

Lanaldi partzialean jardun duten 16-64 urteko soldatapekoen bilakaera (lanaldi teorikoa). 2011-2013 aldia
(Datu absolutuak, urtetik urterako batez besteko hazkunde-tasaren ehunekoa eta hazkundearen ehunekoa 2007-2013 aldian)

Lanbide-egoera	Kopuru absolutuak						Hazkunde-tasa					Hazkundearen ehunekoa 2007/2013
	2001	2005	2007	2009	2011	2013	2001/2005	2005/2007	2007/2009	2009/2011	2011/2013	
Lanaldi partziala	53.095	75.681	91.145	95.291	109.619	120.468	9,3	9,7	2,2	7,3	4,8	32,2
Lanaldi osoa	634.495	692.091	712.982	690.623	651.476	604.739	2,2	1,5	-1,6	-2,9	-3,7	-15,2
Guztira	687.590	767.772	804.128	785.914	761.095	725.207	2,8	2,3	-1,1	-1,6	-2,4	-9,8
Lanaldi partzialeko %	7,7	9,9	11,3	12,1	14,4	16,6						

Oharra: Enplegu jarraitua duten soldatapeko landunak

2007tik 2013ra bitarte, lanaldi partzialaren garrantzi erlatiboak 6 puntu inguru edo gehiago egin du gora euskal eskualde gehienetan.

Gorakada murriztagoa izan da, 2 eta 3 puntu artekoa, Bilboko eskualdeetan, Donostialdean eta Debabarrenean. Hiru eskualde horiek dute lanaldi partzialaren presentzia txikiagoa 2013an (Debabarreneko % 13,3tik Donostialdeko % 15,5era bitarte), eta gehienak Durangaldeko % 15,9tik Gasteizko % 20,1era bitarte kokatzen dira.

Aipatzekoa da Gasteiz dela, LME egiten denetik, lanaldi partzialaren % 20aren atalasea gainditu duen lehenengo eskualdea.

Lanaldi partzialean jardun duten 16-64 urteko soldatapekoen proportzioaren bilakaera, eskualdearen arabera
(Lanaldi teorikoa). 1997-2013 aldia
(%-tan)

Eskualdea	1997	2001	2005	2007	2009	2011	2013
Gasteiz	5,7	6,7	9,7	11,2	12,6	13,1	20,1
Aiaraldea	7,5	9,3	8,7	9,6	8,5	12,0	17,7
Bilbo Eskuinaldea	6,0	7,4	10,6	8,9	8,3	12,8	16,0
Bilbo	5,0	6,7	10,0	12,2	13,8	12,9	14,9
Ezkerraldea	6,5	7,6	10,3	11,5	11,6	15,5	17,2
Bizkaia-Kosta	6,1	9,2	5,5	9,2	8,8	14,0	16,5
Durangaldea	5,3	7,4	7,9	8,9	12,7	16,9	15,9
Donostialdea	7,8	9,2	11,7	13,1	13,3	14,5	15,5
Tolosa-Goierrri	5,7	6,4	7,7	11,1	12,8	17,6	18,3
Debagoiena	6,0	8,3	10,1	9,5	9,3	14,0	17,7
Debabarrena	5,3	7,4	5,8	11,3	14,4	16,7	13,3
Guztira	6,2	7,7	9,9	11,3	12,1	14,4	16,6

12. Biztanleria landunaren sarrerek gutxitzen jarraitzen dute

Biztanleria landunaren sarreretan egindako doiketa-prozesuak eta lanaldi partzialeko lanen gorakada direla eta, okupazioak behera egin du 2009tik 2010era bitartean, eta horrek ondorio garrantzitsu bat izan du 2010ean; hau da, 2005. urtetik, lehen aldiz, EAEko biztanleria landunaren diru-sarrera arrunt garbiak behera egin du. 2010etik 2011ra bitartean, joera hori indartu egin da, eta diru-sarrerak % 4,3 jaitsi dira 2009-2011 biurtekoan. Jaitsiera handiena enpresa pribatuko soldatapekoek dagokie (% -6,4), eta atzetik dituzte enplegatzaileak (% -4,3) eta sektore publikoko soldatapekoak (% -0,5).

2011tik 2013ra bitarte, biztanleria landunaren diru-sarrerek beheranzko joerari eutsi diote, biurteko beherakada-erritmoa % 4,3tik % 2,4ra jaitsi bada ere. Aldi horretan, eragin gehien izan duen taldea sektore publikoko soldatapeko biztanleria izan da, sarrerek % 4,7 egin baitute behera eta autonomoen % 3,9 eta sektore pribatuko soldatapeko biztanleriaren % 2,4ko jaitsiera gainditu baitu.

2007-2013 aldian, sarreren krisia gehien pairatu duen taldea autonomoak izan dira, 2007-2009 aldian guztizko sarrerak murriztu zituen talde bakarra izan baita. Talde horren diru-sarrerak % 18 jaitsi dira 2007tik 2013ra bitartean; aldiz, sektore publikoko soldatapekoen eta enplegatzaileen diru-sarrerak % 13,3 eta % 20,9 handitu dira, hurrenez hurren. Beherakada % 2,7koa da sektore pribatuko soldatapeko biztanleriaren artean. Bilakaera onena kooperatibisten taldeak izan du, % 40,7 handitu baitira haien diru-sarrerak. 2005ekin alderatuz, hazkundera % 23ra jaitsi da, 2005-2007 aldian talde horren diru-sarrerak jaitsi egin baitziren.

Alderaketa 2009-2013 aldira mugatzen badugu, sektore publikoko soldatapeko biztanleriaren diru-sarreren beherakadaren eragina eta sektore pribatuko soldatapekoarena gerturatzen doaz (% -5,2 eta % -8,6); hala, biztanleria autonomoari eragiten dion % 2,1eko murrizketa eta enplegatzaileen % 0,6koa gainditu dute.

EAEen lanaren diru-sarreren beherakada garrantzitsua bada ere -% 6,6 2007tik 2013ra bitarte-, garrantzitsua da aipatzea berau okupazio-zifren hautemandako % 8,7ko murrizketaren azpitik dagoela. Egoera horrek azaltzen du biztanleria landunaren diru-sarreren batez bestekoaren bilakaera alderatu hobe. Krisiaren lehen fasean, batez beste hori 2007ko 1.330,05 eurotik, 2009an 1.422,39 euro izatera igaro zen, eta 1.394,85 eurora jaitsi zen berriz 2011n. Batez besteko hori 2013an suspertu zen, 1.421,37 eurokoa baitzen, 2009an hautemandako maximoaren antzekoa.

Beraz, 2009tik aurrera EAEko biztanleria landunaren diru-sarreren beherakada garrantzitsu hori biztanleria landunaren batez besteko diru-sarreren oinarrizko mantentzearekin bateragarria da.

**Aurreko hilean diru-sarrera garbi positiboak izan dituzten 16-64 urteko landunak,
lanbide-egoeraren arabera. 2005-2013 aldia**
(Diru-sarreraren batez bestekoa €-tan, eta EAEko batez bestekoari dagokion %-a= oinarria 100)

	2005		2007		2009		2011		2013	
Lanbide-egoera	Batez bestekoa	Batez bestekoa %-tan, EAE	Batez bestekoa	Batez bestekoa %-tan, EAE	Batez bestekoa	Batez bestekoa %-tan, EAE	Batez bestekoa	Batez bestekoa %-tan, EAE	Batez bestekoa	Batez bestekoa %-tan, EAE
Enplegatzailea	1.603,08	129,5	1.694,32	130,3	1.856,96	130,6	1.654,59	118,6	1.741,84	122,5
Autonomoa	1.289,45	104,2	1.383,89	106,4	1.337,99	94,1	1.322,21	94,8	1.304,63	91,8
Familia-laguntza	298,60	24,1	648,41	49,9	716,51	50,4	691,17	49,6	503,66	35,4
Kooperatibista	1.335,48	107,9	1.430,59	110,0	1.528,46	107,5	1.553,09	111,3	1.621,13	114,1
Sektore publikoko soldatapekoa	1.518,26	122,7	1.607,56	123,7	1.826,00	128,4	1.799,61	129,0	1.844,37	129,8
Enpresa pribatuko soldatapekoa	1.156,08	93,4	1.208,34	92,9	1.328,61	93,4	1.294,67	92,8	1.319,18	92,8
Beste egoeraren bat	735,08	59,4	634,15	48,8	787,76	55,4	428,28	30,7	999,11	70,3
Guztira	1.237,55	100,0	1.300,05	100,0	1.422,39	100,0	1.394,85	100,0	1.421,37	100,0

**Aurreko hilean diru-sarrera garbi positiboak izan dituzten 16-64 urteko landunak,
lanbide-egoeraren arabera. 2005-2013 aldia**
(Diru-sarrerak guztira €-tan eta 2007/2009tik 2013ra bitarteko bilakaera %-tan)

Lanbide-egoera	2005	2007	2009	2011	2013	Bilakaera 2007/ 2013	Bilakaera 2009/ 2013
Enplegatzailea	48.275.109	47.947.345	58.356.939	55.828.389	57.983.720	20,9	-0,6
Autonomoa	147.429.405	149.143.135	125.034.704	127.318.623	122.363.556	-18,0	-2,1
Familia-laguntza	481.650	1.387.218	1.716.126	1.857.007	393.739	-71,6	-77,1
Kooperatibista	33.374.250	29.166.268	34.874.684	38.095.493	41.049.786	40,7	17,7
Sektore publikoko soldatapekoa	196.662.952	221.682.386	264.967.654	263.535.255	251.181.919	13,3	-5,2
Enpresa pribatuko soldatapekoa	739.625.959	804.868.204	856.728.134	802.191.659	782.996.798	-2,7	-8,6
Beste egoeraren bat	3.085.060	2.650.118	5.697.497	425.735	2.401.370	-9,4	-57,9
Guztira	1.168.934.384	1.256.844.675	1.347.375.739	1.289.252.160	1.258.370.888	0,1	-6,6

Azpiarratzekoak dira lanaren diru-sarreraren bilakaeran EAEko eskualdeek erakusten dituzten ezberdintasunak, 2007-2013 aldian.

Alde batetik, diru-sarrerak % 3-4,5 inguruko mailara jaitsi ziren Gasteiz, Bilbo eta Ezkerraldean; proportzio hori % 7,5era jaitsi zen Aiaraldean. Eskualde horiek guztiek diru-sarreraren beherakada nabarmenak pairatu zituzten 2011-2013 biurtekoan.

Aldiz, lanaren diru-sarrerak 2013an 2007koen gainetik mantendu dira gainerako euskal eskualdeetan. Horietako batzuetan, 2013ko diru-sarreraren hazkundera, 2007 urteari dagokionez, murrizta da; hala gertatu da Donostialdean (% 0,8) eta Tolosa-Goierriin (% 1,5), baina are esanguratsuagoa da EAEko beste gune batzuetan. Hala, Eskuinaldean eta Debagoienean % 2,8 eta % 3,8 artean kokatzen da, eta Bizkaia-Kostan, Durangaldean eta Debabarrenean % 5 baino handiagoa da.

Azken eskualde horietako askotan, hala ere, lanaren diru-sarreraren goranzko joeran aldaketaren bat hauteman da, eta horri eutsiz gero, bilakaera okerragoa duten eskualdeen antzekoak izan daitezke. Gehien eragindako bi eskualdeak Debagoiena eta Donostialdea dira, 2009tik 2013ra bitarte diru-sarreraren murrizketa % 5,8 eta % 7 artekoa izan baita. Prozesu horrek Eskuinaldeari ere eragin dio, 2011 eta 2013 artean lanaren diru-sarreraren % 6,4 galdu baitu.

Egoera onenean, lanaren diru-sarrerek gora egin dute 2009tik aurrera Tolosa-Goierri eta Debabarrenean, eta 2011tik aurrera, baita Bizkaia-Kostan eta Durangaldean ere.

Aurreko hilean diru-sarrera garbi positiboak izan dituzten 16-64 urteko landunak, eskualdearen arabera 2005-2013 aldia

(Diru-sarreraren batez bestekoa €-tan eta 2007/2009tik 2013ra bitarteko bilakaera %-tan)

Eskualdea	2005	2007	2009	2011	2013	Bilakaera 2007/ 2013	Bilakaera 2009/ 2013
Gasteiz	1.284,50	1.333,43	1.401,48	1.388,70	1.357,60	1,8	-3,1
Aiaraldea	1.300,32	1.294,42	1.337,18	1.332,19	1.384,93	7,0	3,6
Eskuinaldea	1.274,82	1.339,75	1.502,59	1.504,55	1.509,00	12,6	0,4
Bilbo	1.263,26	1.357,68	1.528,68	1.525,00	1.463,02	7,8	-4,3
Ezkerraldea	1.191,18	1.228,43	1.324,54	1.301,58	1.362,41	10,9	2,9
Bizkaia-Kosta	1.214,33	1.325,11	1.429,42	1.340,37	1.448,13	9,3	1,3
Durangaldea	1.223,06	1.273,72	1.371,00	1.300,97	1.414,23	11,0	3,2
Donostialdea	1.231,55	1.294,25	1.439,81	1.397,87	1.417,65	9,5	-1,5
Tolosa-Goierri	1.201,87	1.301,94	1.366,35	1.364,09	1.408,11	8,2	3,1
Debagoiena	1.246,81	1.275,07	1.500,27	1.453,03	1.484,91	16,5	-1,0
Debabarrena	1.204,47	1.244,21	1.348,41	1.329,34	1.601,62	28,7	18,8
Guztira	1.237,55	1.300,05	1.422,39	1.394,85	1.421,37	9,3	-0,1

Aurreko hilean diru-sarrera garbi positiboak izan dituzten 16-64 urteko landunak, eskualdearen arabera 2005-2013 aldia

(Diru-sarrerak guztira €-tan eta 2007/2009tik 2013ra bitarteko bilakaera %-tan)

Eskualdea	2005	2007	2009	2011	2013	Bilakaera 2007/2013	Bilakaera 2009/2013
Gasteiz	157.345.772	165.025.127	173.780.601	169.266.914	157.577.333	-4,5	-9,3
Aiaraldea	24.437.115	25.541.337	25.552.210	26.635.123	23.616.960	-7,5	-7,6
Eskuinaldea	90.879.401	96.917.003	106.264.180	106.439.447	99.674.328	2,8	-6,2
Bilbo	181.918.174	203.241.233	229.128.786	210.511.689	197.392.310	-2,9	-13,9
Ezkerraldea	198.791.032	209.695.071	223.422.772	211.467.467	203.684.879	-2,9	-8,8
Bizkaia-Kosta	61.449.980	72.396.384	77.076.257	70.089.671	76.988.534	6,3	-0,1
Durangaldea	62.609.891	70.056.012	71.022.805	68.541.312	73.874.046	5,4	4,0
Donostialdea	262.911.845	279.422.909	303.109.266	287.838.875	281.789.061	0,8	-7,0
Tolosa-Goierri	63.157.722	67.561.458	66.871.642	67.385.096	68.556.007	1,5	2,5
Debagoiena	37.835.683	37.307.352	41.104.346	40.579.678	38.716.913	3,8	-5,8
Debabarrena	27.597.767	29.680.789	30.042.874	30.496.887	36.500.515	23,0	21,5
Guztira	1.168.934.384	1.256.844.675	1.347.375.739	1.289.252.160	1.258.370.888	0,1	-6,6

III. LANGABEAK

Langabeziak nabarmen egin du gora

13.Langabeziaren gorakada indartu egin da 2011tik 2013ra bitartean, eta langabezia-tasa 1999ko mailara itzuli da

2007-2009 aldiko zifrak gaitzen ez baditu ere –urteko batez beste % 69,7ko hazkunde-tasa zuen–, 2011tik aurrera langabeziaren hazkunde-tasa indartu egin da EAEn, 2009tik 2011ra bitarte urteko batez beste % 13,7ko hazkundetik % 17ra igaro baitzen 2011tik 2013ra bitarte. Azken biurteko horretan, langabeziak 43.210 pertsona gehiagori eragiten die, 2007-2009 aldiko 59.000 pertsonaren alloan, baina 2009-2011 biurteko 26.500 pertsonaren hazkundera baino nabarmen handiagoa da.

2013 urtearen amaieran, EAEko 160.110 pertsona daude langabezian. Langabezia-tasa % 15,3ra heldu da, 2011ko % 11,2 baino 4,1 puntu gorago, 2009ko % 8,7 baino 6,6 gorago eta 2009an erregistratutako % 3,1 minimoaren 12,2 puntu gorago. 2013an, langabezia-tasak, baita ere, 2001-2003 aldiko % 8-9aren zifra gaitzen du, baita pasa den mendearen amaierakoak ere, 1999an % 15ekoa baitzen. Egungo langabezia-tasak 1993-1997 aldiko % 20,3tik % 25,9ra bitarteko zifrak baino ez ditu gaitzen.

16-64 urteko langabeen bilakaera. 1993-2013 aldia

(Langabezia-tasa ehunekotan, datu absolutuak eta biztanleria langabearen urtetik urterako batez besteko hazkunde-tasa ehunekotan)

Urtea	Langabezia-tasa	Langabeak	
		Abs.	Urtetik urterako hazkunde-tasa
1993	25,9	238.477	
1995	23,7	220.155	-3,9
1997	20,3	190.885	-6,9
1999	15,0	145.511	-12,7
2001	8,1	75.819	
2003	8,9	86.781	-12,1
2005	4,9	49.100	-24,8
2007	3,1	31.400	-20,0
2009	8,7	90.400	69,7
2011	11,2	116.900	13,7
2013	15,3	160.110	17,0

Prestasun-tasaren bilakaerak enpleguaren eskariaren hazkundera azkartu dela ere adierazten du⁵. Adierazle horren gorakada 2009tik 2011ra bitarte nabarmen moteldu ondoren (2,2 puntu, 2007tik 2009ra bitarteko 5,2aren alboan), tasa hori 3,3 puntu igo da 2011tik 2013ra bitarte, eta mende berrian antzemandako mailarik gorena lortu du. 2013an, prestasun-tasa % 15,7koa da, 2007an lortutako % 5eko minimoa baino 10,7 puntu handiagoa. Horrez gain, 2001-2003 aldiko % 9,1etik % 9,9ra bitarteko zifrak nabarmen gainditu ditu.

Bilakaera hori azaltzeko, ezinbestekoa da beste enplegu bat bilatzen ari diren pertsona landunen kopuruaren hazkundera aintzat hartzea. Zifra horrek –mende berrian 24.435 landunen minimoa zuen 2007an eta 36.079 landunen maximoa lortu zuen 2009an– nabarmen egin du gora azken bi urteotan, 2013an 50.576 pertsona baitziren.

Lan-merkatuaren beheranzko dinamika islatzen duen beste adierazle bat da potentzialki langabezian egon eta, etsia hartuta, enplegu berri bat bilatzeari uko egin dion taldearen gorakadak (eta, beraz, ez-aktibo modura sailkatu dira). 2009an 14.649 kasutara, 2010ean 11.046 kasutara eta 2011n 5.158 kasutara jaitsi ondoren, etsia hartutako biztanleria ez-aktiboak gora egin du 2013an, eta 12.775 pertsona daude egoera horretan.

Hala ere, aipatzekoa da 2011tik 2013ra bitarteko langabezia-zifretan hautemandako hazkunderaren zati bat lanerako prest dagoen biztanleria ez-aktiboaren taldera hurbiltzeko aldaketekin lotuta dagoela, horrek barne hartzen duen pertsona kopurua nabarmen murriztu baita (2011ko 30.001 pertsonatik 2013ko 8.679 pertsonara)⁶. Izan ere, pertsona-talde hori langabezian dagoen biztanleria aktiboan barne hartuko balitz, langabezia-tasa potentziala hiru hamartar baino ez litzateke haziko 2013an, % 16,0ra helduta.

Langabezia potentzialaren tasaren azterketak –lanerako prest dauden pertsona ez-aktiboak barne hartzen dituen adierazlea– langabeziaren bilakaera ez hain negatiboa eskaintzen du 2011-2013 aldiari⁷. Ildo horretan, biurtekoen artean aipatu tasaren hazkunderaren etengabeko murrizketa hauteman daiteke. Hala, 2007 eta 2009 artean hautemandako 6,1 puntuko (% 4,6tik % 10,7ra) hazkunderaren alboan, langabezia potentzialaren tasaren goranzko joera 3 puntura murriztu zen 2009 eta 2011 artean (azken urte horretan % 13,7koa zen) eta 2,3 puntura 2011 eta 2013 artean.

⁵ Prestasun-tasa lanpostu berri bat lortzeko prest daudela adierazten duten pertsonen proportzioa da, egungo lan-egoera edozein dela ere. Barne hartzen ditu langabezian dauden pertsona, beste lanpostu bat bilatu eta berau lortzeko prest dagoen biztanleria landuna eta enplegua lortzeko prest dagoen biztanleria ez-aktiboa.

⁶ 2011tik 2013ra bitarte lanerako prest dagoen biztanleria ez-aktiboaren kopuruan hautemandako beherakada handiaren zati handiena BJA-n eta LME-n txertatutako aldaketekin lotuta dago, enplegua bilatzen ari den biztanleria ez-landunak egindako lan-bilaketarako jarduerak zehatzago antzemateko. Horren ondorioz, biztanleria horretan lana bilatzeko modu aktibo gehiago antzeman dira, eta horren zati handi bat langabe modura hartu da aintzat.

⁷ Langabezia potentzialaren tasak, portzentajeetan, lanpostu berri bat lortzeko prest dagoen biztanleria langabe eta ez-aktiboa eta potentzialki aktiboa den biztanleria lotzen ditu, eta biztanleria landuna, langabea eta lanerako prest dagoen biztanleria ez-aktiboa hartzen ditu barne.

Aipatutako ñabardurak gora behera, edonola ere, 2013ko zifrek EAEko lan-egoerarik okerrera erakusten dute mende berrian, aintza hartutako adierazle ezberdinetan maximoak jaso baitira (langabezia-tasa orokorra, langabezia potentzialaren tasa eta prestasun-tasa). Tasa horiek, kasu guztietan, mendearen hasieran jasotakoen oso gainetik daude.

**Lanerako prest dagoen 16-64 urteko biztanleriaren bilakaera, lan-egoeraren arabera.
2001-2013 aldia**

(Datu absolutuak, 2007-2013 hazkundearen ehunekoak eta % bertikalak)

Lan-egoera	Kopuru absolutuak							Hazkundearen ehunekoa 2007/2013
	2001	2003	2005	2007	2009	2011	2013	
Landuna	33.575	28.027	35.242		36.079	32.848	50.576	107,0
Langabea	99.459	100.241	80.533	46.711	112.274	146.680	168.158	260,0
<i>Langabea</i>	75.565	86.504	49.100	31.330	89.031	116.679	159.480	409,0
<i>Ez-aktiboa</i>	23.893	13.737	31.433	15.380	23.243	30.001	8.679	-43,6
Guztira	133.033	128.268	115.775	71.146	148.353	179.528	218.735	207,4

Lan-egoera	% bertikalak						
	2001	2003	2005	2007	2009	2011	2013
Landuna	25,2	21,9	30,4	34,3	24,3	18,3	23,1
Langabea	74,8	78,1	69,6	65,7	75,7	81,7	76,9
<i>Langabea</i>	56,8	67,4	42,4	44,0	60,0	65,0	72,9
<i>Ez-aktiboa</i>	18,0	10,7	27,2	21,6	15,7	16,7	4,0
Guztira	100	100	100	100	100	100	100

**Beste lanpostu bat lortzeko prest dauden pertsonen adierazle sintetikoak.
2001-2013 aldia**

(Ehunekotan)

Urtea	Prest daude/ biztanleria guztira (Prestasun-tasa)	Prest daude/ biztanleria potentzialki aktiboa	Prest dauden ez-landunak/ biztanleria potentzialki aktiboa (Langabezia potentzialaren tasa)	Prest dauden ez-landunak/ biztanleria aktiboa (Langabezia-tasa)
2001	9,3	13,8	10,4	8,1
2002	9,9	14,2	10,6	9,0
2003	9,1	12,9	10,1	8,9
2005	8,1	11,3	7,8	4,9
2006	6,0	8,4	5,4	3,4
2007	5,0	7,0	4,6	3,1
2009	10,2	14,0	10,7	8,7
2010	11,7	15,8	12,7	10,0
2011	12,4	16,8	13,7	11,2
2013	15,7	20,7	16,0	15,3

14. 2011tik 2013ra bitarte Bizkaiko langabeziaren hazkunde txikiagoa dela-eta, 2007tik 2013ra bitarte biztanleria langabea gehiago hazi da Araba eta Gipuzkoako eskualdeetan, Bilboko gunean baino.

Datu erlatiboei erreparatuta, 2007tik 2013ra bitarte, langabezia gehien hazi zen eskualdeak Gasteiz, Aiaraldea eta Debagoiena dira. Kasu horretan, biztanleria langabea 7 aldiz handiagoa da. Langabeziak % 500 egin du gora Tolosa-Goierri eta Debabarrenean, baita Durangaldean ere.

Durangaldean izan ezik, eskualde horietan deskribatutako egoera 2011 eta 2013 artean langabezia nabarmen haztearekin lotuta dago; aldi horretan, urteko batez beste % 40 inguru edo gehiago hazi zen. Hori dela eta, 2009tik 2011ra bitarteko pertsona langabe kopuruaren beherakada edo egonkortasun-dinamika hautsi egin da, Debagoienean izan ezik, bertan % 7,3 hazi baitzen. Aldiz, 2007-2009 biurteko egoerara itzuli da eta aldi horretan, Durangaldearekin batera, eskualde horiek ziren langabeziaren goranzko joerak gehien eragin zituenak.

2011tik 2013ra bitarteko langabeziaren hazkundera, halaber, nabarmena da Eskuinaldean eta Donostialdean (% 41,5 eta % 24,4) eta, beraz, 2009tik 2011ra bitarte langabeziaren hazkundera % 8,5etik % 9,6ra bitarte, hau da, EAEko hazkunderaren batez bestekoaren azpitik, mantendu ziren eskualdeei eragin zien. Langabeziaren hazkundera batez bestekoaren azpitik zegoen eskualde horietan 2007tik 2009ra bitarte ere, batez ere Eskuinaldean. Egoera horrek epe luzera langabeziaren goranzko eragina mugatzen du, bereziki Bizkaiko eskualdean, bertan 2007tik 2013ra bitarte langabeziaren hazkunde erlatiboa txikiagoa baitzen (% 256,9, Donostialdearen % 407,5aren alloan).

2011tik 2013ra bitarte langabeziaren hazkundera askoz ere motelagoa da Bilbo eta Ezkerraldean, % 5,4 eta % 4,1 hazi ziren. Biztanleria langabeen bolumena egonkortu egin da, baita Bizkaia-Kosta eta Durangaldean ere. Eskualde horietan guztietan 2009tik 2011ra bitarte EAEko hazkunde maximoak jaso bazituzten ere –urteko batez beste % 17,2tik % 31,4ra bitarte–, orokorrean 2007-2009 biurtekoan fenomenoaren hazkunde txikiagoa izan zuten gunek dira.

Errealitate horren ondorioz, eskualde horiek langabeziaren hazkunderaren eragin txikiena izan zuten 2007tik aurrera, Durangaldeak izan ezik; eskualde horrek hazkunde handienetakoa jasan zuen 2007 eta 2009 artean. 2007-2009 aldian hasierako krisia gehien pairatu zuten eskualdeetan ez bezala (Gasteiz, Aiaraldea, Tolosa-Goierri, Debagoiena eta Debabarrena), Durangaldeak beranduago Bizkaia-aren –Eskuinaldea salbu– ezaugarri izango den prozesu positiboaren parte izango da, eta krisi garaian zehar langabeziaren hazkunderaren urte batez besteko tasak pixkana egingo dute beherantz.

2007 eta 2013 artean biztanleria langabearen gutzizko hazkundearen % 45 izan badute ere, Bizkaiko eskualdeetan 2011-2013 aldiko langabeziaren alderatutako bilakaera hobearen ondorioa da Bilboko hiru eskualdeek krisi garaian langabeziaren hazkundeari Araba eta Gipuzkoako eskualdeek baino gutxiago gehitu diotela da, % 45,5, hain zuzen ere. Bizkaia-Kosta eta Durangaldeari dagokie gainerako % 9,5a.

16-64 urteko langabeen bilakaera, eskualdearen arabera. 2007-2013 aldia

(Datu absolutuak, urtetik urterako batez besteko hazkunde-tasaren ehunekoa eta hazkundearen ehunekoa 2007-2013 aldian)

Eskualdea	Kopuru absolutuak				Urtetik urterako batez besteko hazkundearen tasa			Hazkundearen ehunekoa 2007/2013
	2007	2009	2011	2013	2007/2009	2009/2011	2011/2013	
Gasteiz	2.673	15.084	9.853	21.492	137,5	-19,2	47,7	704,0
Aiaraldea	327	1.316	1.247	3.119	100,7	-2,7	58,2	854,6
Eskuinaldea	3.186	4.822	5.682	11.371	23,0	8,5	41,5	256,9
Bilbo	7.687	15.686	27.070	30.045	42,8	31,4	5,4	290,8
Ezkerraldea	6.666	20.051	31.351	33.989	73,4	25,0	4,1	409,9
Bizkaia-	1.685	4.567	7.927	8.126	64,6	31,8	1,2	382,3
Durangaldea	1.075	5.074	6.971	6.904	117,2	17,2	-0,5	542,1
Donostialdea	6.225	17.002	20.420	31.594	65,3	9,6	24,4	407,5
Tolosa-	856	2.921	2.948	6.172	84,8	0,4	44,7	621,3
Debagoiena	415	1.601	1.844	3.603	96,5	7,3	39,8	768,8
Debarrena	605	2.275	1.589	3.695	94,0	-16,4	52,5	511,0
Guztira	31.400	90.400	116.900	160.110	69,7	13,7	17,0	409,9

16-64 urteko biztanleria langabearen eta langabezia-tasaren bilakaera, eskualdearen arabera. 2007-2013 aldia

(Datu absolutuak, langabezia-tasa %-tan, 2007-2013 aldiko langabeziaren aldakuntza %-tan eta 2007-2013 aldiko hazkundearen barne-banaketa %-tan)

Eskualdea	Langabeak (Datu absolutuak)		Langabezia-tasa (Ehunekotan)		Aldakuntzaren ehunekoa 2007/2013	2007-2013 aldiko hazkundearen banaketa (%-tan)
	2007	2013	2007	2013		
Gasteiz	2.673	21.492	2,1	15,6	704,0	14,6
Aiaraldea	327	3.119	1,6	15,4	854,6	2,2
Bilbo Eskuinaldea	3.186	11.371	4,2	14,7	256,9	6,4
Bilbo	7.687	30.045	4,9	18,2	290,8	17,4
Ezkerraldea	6.666	33.989	3,8	18,5	409,9	21,2
Bizkaia-Kosta	1.685	8.126	3,0	13,2	382,3	5,0
Durangaldea	1.075	6.904	1,9	11,6	542,1	4,5
Donostialdea	6.225	31.594	2,8	13,7	407,5	19,7
Tolosa-Goierri	856	6.172	1,6	11,3	621,3	4,1
Debagoiena	415	3.603	1,4	12,1	768,8	2,5
Debarrena	605	3.695	2,5	14,0	511,0	2,4
Guztira	31.400	160.110	3,1	15,3	409,9	100,0

15. Langabezia-tasek bat egiteko joera dute, baina langabeziak eragin handiagoa du jende gehien bizi den EAEko guneeetan

2011 eta 2013 aldian hautemandako dinamika ezberdinek eragin handia dute langabezia-tasen eskualdekako bilakaeran. Alde batetik, tasa horiek gutxiago hazten dira 2011n % 10etik gorako langabezia-tasa zuten eskualdeetan (Bizkaiko eskualde guztietan, Eskuinaldean izan ezik), nahiz eta, oraindik ere, 2 puntu inguruko gorakadan eragina izan, Bilbo eta Eskuinaldearen kasuan. Bi eskualde horiek, izan ere, langabeziaren % 18 baino zifra altuagoa dute, eta EAEko maila gorenean daude, % 18,2 eta % 18,5rekin, hurrenez hurren.

Aldiz, langabezia-tasak 5 puntu inguru edo gehiago egin du gora 2011n % 10 gainditzen ez zuten eskualdeetan. Kasu batzuetan, bilakaera hori oso langabezia-maila altura iristen da, Gasteizen, Aiaraldean eta Eskuinaldean gertatu den moduan, bertako zifrak % 14,7 eta % 15,6 artean baitaude. Beste eskualdeetan hain maila altura iritsi ez badira ere, tasak, kasu guztietan, % 10 baino handiagoak dira 2013an, % 11,3 eta % 13,7 artean daude Gipuzkoako lau eskualdeetan. 2011 eta 2013 artean langabeziaren zifrak egonkortu baziren ere, Bizkaia-Kosta eta Durangaldea EAEn langabeziaren maila erlatibo txikiena duten taldean kokatzen dira.

Aipatu prozesu horren ondorioz, langabezia-tasak gehiago bateratu dira, XX. mendearen azken zatian ohikoa zenarekin alderatuta, eta 7,2 puntuko aldakuntza dago Ezkerraldeko tasa maximoaren (% 18,5aren) eta Tolosa-Goierriko minimoaren (% 11,3aren) artean. Errealitate hori ezberdina zen 2007an, 15 puntu baino gehiagoko aldea baitzegoen Debabarreneko % 9,7aren eta Ezkerraldeko % 25,9aren artean.

Hirigune handietan, prozesu hori EAEko hiri-eskualde handietako langabezia-tasen bateratze-prozesua hazten ari dela dirudi; 2010. urtean, % 10 eta % 12 ingurukoak izan ziren. 2010-2011 aldian, Gasteizko, Eskuinaldeko eta Donostialdeko langabezia-kopuruek behera egin zuten; aldiz, Ezkerraldeko eta Bilboko kopuruak hazi egin ziren; hala, langabezia-kopuruen polarizazio nabarmena gertatu da, 90eko urteetan hain ohikoa zena. Horrenbestez, hainbat eskualdek osatutako lehen taldean, % 7,4 eta % 9 arteko kopuruak izan zituzten; aldiz, Bilbon eta Ezkerraldean, gainditu egin zuten 2011. urtean % 16ko langabezia-tasaren muga. Hala ere, 2001tik 2013ra bitarte hautemandako okertzeak – 2011n langabeziaren eragin txikiena zuten guneeetan gehien eragin du–, gehien hiritartatutako eskualdeen tasak gerturatu ditu, 4-5 puntu inguruko tartean kokatuta. Minimoa % 13,7koa da, Donostialdea, % 14,7tik % 15,6ra bitarte Eskuinaldean eta Gasteizen, eta maximoa, % 18 baino handiagoa, Bilbon eta Ezkerraldean.

EAEko gehien hiritartatutako eskualdeetako langabezia-tasek, orokorrean, gainerako euskal eskualdeak gainditu dituzte, Aiaraldeak izan ezik. Azken hori, % 15,4ko tasa izanda, langabeziak gehien eragindako EAEko gunea da. Gainerako eskualdeak bat datoz, goranzko joeran baita ere, Tolosa-Goierriko % 11,3ko minimoaren eta Debabarreneko % 14ko maximoaren inguruan. Aiaraldearen kasuan salbu, hautsi egin da EAEko gutxien hiritartatutako eskualdeen polarizazioa, 2011n ere

hauteman zen. Horrenbestez, Araban eta Gipuzkoan gutxien hiritartutako eskualdeetan (Aiaraldea, Tolosa-Goierrri, Debagoiena eta Debarrena), % 5,6tik % 6,5era arteko langabezia-tasak izan ziren, eta aldiz, Durangaldea eta Bizkaia-Kosta, % 12 eta % 13 inguruko langabezia-tasak.

Edonola ere, egoerak nabarmen egin du okerrera, gaur egun langabezia-tasa guztiak baitira mendearen hasieran zeudenak baino handiagoak. 2001ean langabeziaren % 10 eskualde bakarrak gainditzen zuen (Bilbok); gaur egun, aldiz, eskualde guztiek gainditzen dute. Bi eskualderen kasua, gainera, 2013ko langabezia-tasa 1997koa baino handiagoa da. Gasteizen, esaterako, % 15,6koa da, urte hartako % 15,3 baino hiru hamartar handiagoa.

Hala ere, Debagoiena da bilakaera negatiboena pairatu duen eskualdea: gaur egungo langabezia-tasak (% 12,1) 1997koa nabarmen gainditu du (% 9,7). Eskualde hori da, hala ere, EAEko langabeziaren eragin erlatibo txikiena duen eskualdeetako bat.

16-64 urteko biztanleriaren langabezia-tasaren bilakaera, eskualdearen arabera. 1993-2013 aldia
(Ehunekotan)

Eskualdea	Langabezia-tasa								
	1993	1997	2001	2005	2007	2009	2010	2011	2013
Gasteiz	21,2	15,3	5,8	2,4	2,1	10,8	11,0	7,5	15,6
Aiaraldea	26,2	17,7	5,7	3,4	1,6	6,4	6,5	5,9	15,4
Eskuinaldea	25,6	21,5	8,9	6,3	4,2	6,4	10,1	7,4	14,7
Bilbo	28,9	25,6	13,1	7,2	4,9	9,5	12,2	16,4	18,2
Ezkerraldea	32,0	25,9	9,0	7,3	3,8	10,6	11,0	16,2	18,5
Bizkaia-Kosta	22,0	17,0	6,5	5,9	3,0	7,8	8,6	13,2	13,2
Durangaldea	24,8	18,3	7,6	4,4	1,9	8,9	7,7	11,7	11,6
Donostialdea	23,2	18,5	7,1	3,7	2,8	7,5	9,8	9,0	13,7
Tolosa-Goierrri	23,4	14,8	5,8	2,4	1,6	5,6	6,2	5,6	11,3
Debagoiena	22,7	9,7	3,7	2,0	1,4	5,5	5,9	6,2	12,1
Debarrena	23,2	17,7	4,5	2,7	2,5	9,3	8,2	6,5	14,0
Guztira	25,9	20,3	8,1	4,9	3,1	8,7	10,0	11,2	15,3

16.Langabeziaren aldakuntza-faktoreak ezberdinak dira eskualdearen arabera

Eskualdeetako egungo langabezia-tasak azaltzen dituzten azpiko faktoreen eragina aintzat hartu behar da, krisi garaian langabeziaren eraginean hautematen diren aldaketen norabidea zehaztasunez ulertzeko.

Lehenik eta behin, aipatu behar da EAEn 2007tik 2013ra bitarte 16 urtetik 64 urte bitarteko biztanleriaren kopurua jaisteak nabarmen murriztu duela eskualde askotan jarduera-tasaren gorakadaren eta okupazioaren beherakadaren ondoriozko langabeziaren eragina. EAE osoan, faktore horrek langabezia-tasa 2,6 puntu jaisten lagundu du, eta 16 urtetik 64 urtera bitarteko biztanleria mantendu izan balitz, % 17,9ra hurbil zitekeen.

16 urtetik 64 urtera bitarteko biztanleriaren beherakadaren ondorio orekatzailea bereziki altua da Bilboko hiru eskualdeetan eta Debagoienean, eskualde horietan langabezia-tasa 4,1etik 5,1 puntura arte murrizten lagundu baitu 2013an. Zifra hori 1,7 eta 2,8 puntu artekoa da Durangaldea, Donostialdean eta Debabarrenean. Aldiz, faktore horrek ia ez du eraginik Gasteizen, Aiaraldea, Bizkaia-Kostan eta Tolosa-Goierriin.

Bigarren faktore azpimarragarriak jarduera-tasen goranzko presioari egiten dio erreferentzia. Presio horrek EAEko langabezia-tasan 6,7 puntuko hazkundeari lagundu dio 2007tik 2013ra bitarte, okupazioaren beherakadari egotz dakioken 8,1 puntuetatik oso hurbil. Hala ere, kasu honetan, oso eragin antzekoa du eskualde gehienetan, langabezia-tasan 7,2 eta 9,9 puntu arteko hazkundeari lagundu baitio, azpimarratzeko salbuespen batzuk salbu. Horien artean, alde batetik, Donostialdea, Tolosa-Goierri eta Debagoiena daude, jarduera-tasen gorakadari lotutako langabezia-tasa 2,8 eta 4,7 puntu artean hazi baita eta, beraz, EAEko batez bestekoaren oso azpitik. Beste aldetik, Aiaraldearen kasuan, langabezia-tasaren hazkundera egindako ekarpena ia ez da hautematen, eta hori oso ezohiko fenomeno da Euskadiko lan-merkatuaren azken urteotako bilakaeran.

Egiazta daitekeenez, ia euskal eskualde guztietan okupazioaren beherakadaren eragina, alderaketak eginda, murrizten laguntzen duten faktoreek esku hartzen dute. Gasteiz eta Bizkaia-Kostako eskualdeetan baino ez dute izan adierazle horiek onurarik langabezian; 16 urtetik 64 urtera bitarteko biztanleria egonkor mantendu da 2007tik 2013ra bitarte eta jarduera-tasaren goranzko joeraren EAEko batez bestekoa baino gehiago hazi da. Eskualde horiei batu behar zaie Debabarrena, 16 urtetik 64 urtera bitarteko biztanleriaren beherakada txikiagoa baita jarduera-tasaren goranzko eragin handiarekin alderatuta.

Aipatu faktoreak kontuan hartu behar dira langabezia-tasaren azken garaiko dinamika aztertzerakoan, hau da, benetako langabezia-tasa eta okupazioan emandako aldaketen ondoriozkoa alderatuta, 2007an zegoen 16 urtetik 64 urtera bitarteko biztanleria eta jarduera-tasak egonkor mantendu izan balira.

Horri esker, eskualde batzuek joera negatiboagoak erakusten dituzte, 2013ko benetako langabezia-tasen azterketa automatikoa egiten ikus daitekeena baino. Horixe da Bilbo, Aiaraldea eta Debagoienaren kasua. Eskualde horietan, okupazioaren beherakadaren eragin handiagoaren ondorioak 16 urtetik 64 urtera bitarteko biztanleriaren beherakada handia izan duten EAEko beste eskualde batzuetan baino gehiago mugatu dute (Bilbok, Eskuinaldeak eta Ezkerraldeak), jarduera-tasak egonkortu egin dira (Aiaraldean) edo bi faktore horiek batera gertatu da (Debagoienean).

Aldiz, gainerako euskal eskualdeetan (Gasteiz, Bizkaia-Kosta, Durangalde eta Debagoiena izan ezik gainerako Gipuzkoako eskualdeetan), langabezia-tasek, datuak alderatuta, okertze-maila areagotu dute, EAEko beste eskualdeekin alderatuta. Kasurik azpimarragarriena Gasteizkoa da. 16 urtetik 64 urtera bitarteko biztanleria mantendu egin denez, eta jarduera EAEko batez bestekoaren gainetik hazi denez, eskualde horrek, 2013an, EAEko batez bestekoa baino benetako langabezia-tasa handiagoa

izan du (% 15,6, EAEko % 15,3aren alboan); tasa hori okupazioaren ondorioz baino aterako ez balitz, batez bestekoa baino 5,5 puntu txikiagoa izango litzateke. Gasteizko kasua bezain azpimarragarria ez bada ere, Debabarrenean errealitate ekonomikoa. datuak alderatuta, benetako langabezia-tasek adierazten dutena baino aldekoagoak dira (-1,3 puntu benetako langabezia-tasan EAEko batez bestekoari dagokionez, baina -4,2 puntu, okupazioaren eragina bakarrik kontuan hartuta).

Langabeziaren aldakuntza-faktorea 2007tik 2013ra bitarte
(2007ko biztanleria langabeziaren eta 2013ko biztanleria aktiboari dagokionez, %-tan)

Eskualdea	2007tik 2013ra bitarteko biztanleria langabeziaren aldakuntza-faktoreak (2007ko biztanleria langabeziaren dagokionez hazkundearen %-tan)				2007tik 2013ra bitarteko langabezia-tasaren aldakuntza-faktoreak (2013ko biztanleria aktiboari dagokionez hazkundearen %-tan)				Langabezia-tasa 2013an	
	16-64 urteko biztanleria	Jarduera-tasa	Okupazioa	GUZTIRA	16-64 urteko biztanleria	Jarduera-tasa	Okupazioa	GUZTIRA	Benetakoa	Okupazioaren eragina bakarrik
Gasteiz	2,2	382,3	319,5	704,0	-0,1	7,4	6,2	13,5	15,6	8,4
Aiaraldea	-34,9	11,4	878,1	854,6	-0,6	0,2	14,2	13,8	15,4	16,4
Eskuinaldea	-121,8	175,0	203,7	256,9	-5,1	7,2	8,4	10,5	14,7	17,7
Bilbo	-99,6	189,1	201,3	290,8	-4,8	8,8	9,4	13,3	18,2	19,1
Ezkerraldea	-118,4	213,6	314,7	409,9	-4,4	7,7	11,4	14,7	18,5	19,6
Bizkaia-										
Kosta	4,6	292,6	85,1	382,3	-0,1	8,0	2,3	10,2	13,2	5,4
Durantaldea	-121,3	402,1	261,3	542,1	-2,3	7,3	4,7	9,7	11,6	8,9
Donostialdea	-61,1	174,6	294,0	407,5	-1,7	4,7	7,9	10,9	13,7	12,5
Tolosa-										
Goierri	37,9	178,7	404,8	621,3	0,5	2,8	6,3	9,6	11,3	7,4
Debagoiena	-292,1	296,8	764,0	768,8	-4,1	4,1	10,7	10,7	12,1	16,1
Debabarrena	-115,4	433,2	193,2	511,0	-2,8	9,9	4,4	11,5	14,0	9,7
Guztira	-83,8	224,0	269,7	409,9	-2,6	6,7	8,1	12,2	15,3	13,9

Oharra: Okupazioaren galeraren ondorioz bakarrik kalkulatu diren langabezia-tasak aintzat hartzen du 2007ko 16 urtetik 64 urtera bitarteko biztanleria eta jardueraren tasak mantendu egin direla.

Iraupen luzeagoko langabeziak gora egin dute

2007-2009 biurtekoan ez bezala, langabeziak 2009tik aurrera izan duen hazkundera iraupenik luzeeneko langabeziaren oinarritu da nagusiki. Iraupen luzeagoko langabeziaren proportzioa –lanpostu bila urtebete baino gehiago daramate– % 33koa zen 2009an, % 56koa 2011n eta 2013an % 59,8ra heldu da. Datu absolutuei erreparatuta, 2013an 95.787 pertsona daude iraupen luzeagoko langabeziaren, 2009ko 29.852 pertsona baino 65.935 gehiago.

Oso iraupen luzeagoko langabezia (bi urtetik gorakoa) nabarmen hazi da, 2009an % 12,7 izatetik 2011n % 31 izatera eta 2013an % 39,4 izatera pasatu baita. Langabezia mota horrek 63.130 pertsonari eragin zien 2013an, 2009ko 11.516 pertsonari baino 51.614 gehiagori. 2011tik 2013ra bitarte, oso iraupen luzeagoko langabeziaren gorakada da guztien artean handiena, urteko batez beste % 32,1ko tasarekin; iraupen laburreko langabeziaren % 11,4ko hazkundera eta urtebete eta bi urte arteko langabeziaren % 5,7ko hazkundera ia hirukoitzen ditu.

16-64 urteko langabeen bilakaera, langabezian emandako denboraren arabera. 2007-2013 aldia

(Datu absolutuak, urtetik urterako batez besteko hazkunde-tasaren ehunekoa eta hazkundearen ehunekoa 2007-2013 aldian)

Langabezian emandako denbora	Kopuru absolutuak				Urtetik urterako batez besteko hazkundearen tasa			Hazkundearen ehunekoa 2007/2013
	2007	2009	2011	2013	2007/ 2009	2009/ 2011	2011/ 2013	
< urte bat	19.776	59.179	51.285	63.693	73,0	-6,9	11,4	222,1
> urte bat	11.554	29.852	65.418	95.787	60,7	48,0	21,0	729,0
1-2 urte bitartean	6.264	18.335	29.233	32.657	71,1	26,3	5,7	421,3
> 2 urte	5.290	11.516	36.185	63.130	47,6	77,3	32,1	1.093,5
<i>Ez dago eskuragarri</i>	<i>70</i>	<i>1.369</i>	<i>197</i>	<i>630</i>				
Guztira	31.400	90.400	116.900	160.110	69,7	13,7	17,0	409,9
ILL (%)	36,8	33,0	56,0	59,8				
OILL (%)	16,8	12,7	31,0	39,4				

Bestalde, lan-esperientzia duten pertsonen eragiten dien langabezia mota mantendu egin da. EAEn biztanleria langabearen % 5,4rek ez du lan-esperientziarik.

16-64 urteko langabeen bilakaera, aldez aurreko lan-esperientziaren arabera. 2007-2013 aldia

(Datu absolutuak, urtetik urterako batez besteko hazkunde-tasaren ehunekoa eta hazkundearen ehunekoa 2007-2013 aldian)

	Kopuru absolutuak				Urtetik urterako batez besteko hazkundearen tasa			Hazkundearen ehunekoa 2007/2013
	2007	2009	2011	2013	2007/ 2009	2009/ 2011	2011/ 2013	
Aldez aurreko lan-esperientzia	28.930	85.753	108.803	150.802	72,2	12,6	17,7	75,9
Lan-esperientzia	28.930	85.753	108.803	150.802	72,2	12,6	17,7	75,9
Lan-esperientziarik gabea	2.400	3.278	7.900	8.678	16,9	55,2	4,8	164,7
Ez dago eskuragarri	70	1.369	197	630				
Guztira	31.400	90.400	116.900	160.110	69,7	13,7	17,0	77,1
Esperientziarik gabekoak (%)	7,6	3,6	6,8	5,4				

17. Debagoienean, Debabarrenean eta Bilbon du eragin handiena iraupen luzeko langabeziak

Euskal eskualde guztiek gaingitu dute iraupen luzeko langabeen % 50, eta adierazle hori, orokorrean, % 50 eta % 60 artean dago. Hiru salbuespenak Bilbo, Debagoiena eta Debabarrena dira. Eskualde horietan iraupen luzeko langabeziak biztanleria langabearen % 67,7tik % 71,8ra bitarteri eragiten dio. Arazorik larriena Bilbon gertatzen da, berau da EAEko batez bestekoa baino langabezia-tasa duen hiru eskualdeetako bakarra.

Oso iraupen luzeko langabeziaren tasarik altuenak, baita ere, Bilboko eskualdeei, Debagoienari eta Debabarrenari dagozkie; % 45 inguru edo altuagoak, Debabarrenaren % 56,1era helduta. Aiaralde,

Eskuinalde, Ezkerralde, Durangalde eta Donostialdearen kasuan, proportzio hori % 37,2tik % 39,5era artekoa da. Minimoak Gasteiz, Bizkaia-Kosta eta Tolosa-Goierriko % 32,3tik % 34,4ra bitarte kokatzen dira.

Iraupen luzeko langabeen (langabezian urtebete baino gehiago daramatenen) proportzioaren bilakaera, eskualdearen arabera. 1993-2013 aldia (Ehunekotan)

Eskualdea	1993	1997	2001	2005	2007	2009	2011	2013
Gasteiz	60,4	54,7	39,1	28,5	44,1	24,4	60,0	55,5
Aiaraldea	70,9	54,5	47,0	32,9	39,0	27,8	37,5	59,3
Bilbo Eskuinaldea	65,4	61,6	37,7	36,3	39,0	42,5	51,2	59,1
Bilbo	62,5	66,1	48,9	34,4	46,9	35,2	55,8	67,9
Ezkerraldea	64,6	65,7	46,6	35,3	36,8	33,6	57,4	57,9
Bizkaia-Kosta	58,1	61,7	53,0	15,3	21,3	27,3	67,3	51,8
Durangaldea	67,1	66,6	41,6	34,7	34,3	48,0	48,8	59,4
Donostialdea	58,1	62,0	45,0	40,5	27,4	34,6	53,5	57,3
Tolosa-Goierri	59,4	58,6	41,6	32,3	23,4	25,0	47,5	59,9
Debagoiena	67,2	58,2	41,7	29,0	25,9	39,1	62,8	67,7
Debabarrena	70,3	72,5	61,3	27,6	33,9	24,2	51,3	71,8
Guztira	62,5	63,1	45,4	34,0	36,8	33,0	56,0	59,8

Oso iraupen luzeko langabeen (langabezian bi urte edo gehiago daramatenen) bilakaera, eskualdearen arabera. 1993-2013 aldia (Ehunekotan)

Eskualdea	1993	1997	2001	2005	2007	2009	2011	2013
Gasteiz	36,1	36,2	21,1	12,7	20,5	7,9	22,2	33,0
Aiaraldea	41,0	35,0	17,6	22,7	8,2	8,8	19,7	38,8
Bilbo Eskuinaldea	36,9	39,3	19,2	19,3	7,5	17,0	30,7	39,5
Bilbo	41,3	47,2	30,7	15,6	28,3	16,4	34,9	46,5
Ezkerraldea	44,2	42,3	24,7	18,3	13,8	13,0	29,9	37,2
Bizkaia-Kosta	37,8	37,6	28,7	2,4	4,7	7,1	42,8	32,3
Durangaldea	47,6	50,5	23,4	15,5	21,0	17,5	27,6	39,6
Donostialdea	33,0	41,7	27,8	15,3	13,4	14,5	31,3	39,8
Tolosa-Goierri	39,6	37,4	27,7	16,0	16,1	9,7	23,6	34,4
Debagoiena	43,1	41,4	15,5	14,1	7,1	3,3	22,7	44,2
Debabarrena	47,4	54,0	39,1	,6	12,0	9,0	24,2	56,1
Guztira	39,9	42,5	26,3	15,5	16,8	12,7	31,0	39,4

Langabeziaren kronifikazioaren igoera lana lortzeko gero eta zailtasun handiagoen emaitza izan da. Azken hamabi hilabeteetan enpleguarekin lotura bat izan duten langabeen proportzioa % 50 ingurukoa zen 2003-2006 aldian, eta % 46,4ra eta % 47ra jaitsi zen 2007an eta 2009an; azken bi urteetan ere jaitsi egin da: % 40,7ra 2010ean, % 39,8ra 2011n eta % 30,1era 2013an.

Azken urtean enpleguarekin loturarik izan duten langabeen % 40a ez du eskualde bat berak ere gaintitzen. Aldiz, zifra hori % 30 baino txikiagoa da Aiaraldean, Bilbon, Donostialdean, Debagoiengan eta Debabarrenean.

16-64 urteko biztanleria, lan-egoeraren eta azken urtean lanean eman duen denboraren arabera.**2013 urtea**
(% bertikalak)

Lanean emandako denbora	Lan-egoera			
	Landuna	Langabea	Ez-aktiboa	Guztira
12 hilabete	89,3	,3	,2	57,0
9-11 hilabete	2,5	5,9	1,3	2,6
6-8 hilabete	2,8	6,9	1,7	3,0
< 6 hilabete	5,4	17,1	3,5	6,3
Batere ez	,0	69,9	93,2	31,1
Guztira	100	100	100	100

Azken urtean enpleguarekin lotura bat izan duten 16-64 langabeen proportzioa, eskualdearen arabera. 2007-2013 aldia
(Ehunekotan)

Eskualdea	2007	2009	2010	2011	2013
Gasteiz	47,4	53,5	49,0	32,9	35,6
Aiaraldea	50,4	50,5	40,3	53,7	23,5
Bilbo Eskualdea	52,5	42,9	46,7	44,6	32,7
Bilbo	35,1	45,7	27,6	44,6	24,5
Ezkerraldea	46,2	43,5	43,3	37,2	32,5
Bizkaia-Kosta	59,5	52,0	51,0	29,3	39,9
Durantaldea	41,5	33,0	49,7	39,0	32,7
Donostialdea	50,1	47,4	38,1	40,9	27,3
Tolosa-Goierri	54,1	51,9	34,8	47,7	32,6
Debagoiena	71,1	51,5	55,7	34,8	27,9
Debarrena	58,1	60,7	39,6	53,6	16,0
Guztira	46,4	47,0	40,7	39,8	30,1

18.Enplegurako eragozpenak

2013an, biztanleria langabearen % 87,5ek lana lortzeko eragozpenen bat duela adierazi du. Arazo nagusiak kalifikazioari buruzko alderdiei dagozkienak, hots: ikasketa-mailei, hizkuntzak jakiteari eta lan-esperientziari; zehazki, talde horretako % 63k aipatu ditu eragozpen horiek. Hizkuntzen garrantzia aipatzekoa da, biztanleria langabearen % 39,7k aipatu baitu, eta zifra horrek 2001etik aurrera hautemandako maila gorena nabarmen gainditu du (2010ean % 27,4).

Azpitarragarria da, baita ere, adinaren garrantzia, 2013an biztanleria langabearen % 33,1ek aipatu duen faktorea da; 2005etik ezagutzen den zifra altuenetakoa, 2010ean baino ez zen gainditu (% 34,3). 2013an, eragozpen hori aipatu duten pertsonen % 47,8k 50 urte baino gehiago ditu, baina % 40, 35 urte eta 49 urte bitartekoa da.

2005etik aurrera ezagutu dugun maila antzekoan kokatuta, biztanleria langabearen % 17,8k aipatu du 2013an mugigarritasun geografikorako ezintasuna, eta % 13,8k familia-zamak aipatu ditu.

16-64 urteko biztanleria langabea, lana lortzeko izandako eragozpenen eta eskualdearen arabera. 2013
(Eskualde bakoitzeko biztanleria langabearen ehunekotan)

Eragozpenak	Gasteiz	Aiaraldea	Eskuin- aldea	Bilbo	Ezkerral- dea	Bizkaia- Kosta	Durangaldea	Donostialdea	Tolosa- Goierri	Deba- goiena	Debabarrena	Guztira
Ikasketa-maila	20,1	37,5	20,3	34,7	26,7	19,5	31,5	39,3	60,1	18,1	55,9	31,1
Hizkuntzak	34,9	33,4	29,5	53,9	45,9	24,6	33,8	31,5	48,4	28,8	42,0	39,7
Lan-esperientzia	12,4	25,6	23,5	31,1	16,5	26,5	40,1	36,7	18,6	25,2	24,2	25,3
Kalifikazioa/Esperientzia	53,6	69,3	43,4	69,7	62,6	54,8	63,9	68,2	77,7	52,5	78,0	63,0
Familia-kargak	11,4	15,9	15,0	10,0	15,1	15,1	12,6	17,1	18,3	15,0	5,7	13,8
Sexua	2,4	,0	,7	1,7	1,6	,0	,0	2,9	1,2	3,3	2,9	1,8
Sexua/Familia-kargak	13,4	15,9	15,0	11,7	16,4	15,1	12,6	19,2	19,4	18,3	8,6	15,3
Soldata-helburuak	1,9	9,5	6,1	9,5	4,7	4,0	11,3	3,2	1,8	3,2	8,4	5,3
Mugigarritasun geografikorako ezintasuna	15,5	24,7	17,1	16,7	15,1	26,3	5,4	23,8	23,7	14,4	7,4	17,8
Adina	35,5	35,1	18,3	40,3	30,3	22,5	31,1	35,3	48,9	16,6	27,3	33,1
Jatorrizko herrialdea	4,5	3,7	3,6	15,9	4,7	1,9	3,0	8,2	4,2	2,4	2,2	7,0
Eragozpen fisikoa	3,7	2,9	1,7	3,5	4,3	4,5	2,5	2,3	,0	,7	2,7	3,1
Eragozpenen bat	18,4	15,4	20,0	8,6	11,3	17,9	4,7	9,9	9,6	29,6	11,1	12,5

16 eta 64 urte bitarteko langabeen bilakaera, enplegua lortzeko eragozpenen arabera. 2005-2013 aldia
(Eskualde bakoitzeko biztanleria langabearen ehunekotan)

Eragozpenak	2005	2007	2009	2011	2013
Ikasketa-maila	34,4	29,9	34,9	32,0	31,1
Hizkuntzak	22,9	19,8	23,7	18,4	39,7
Lan-esperientzia	38,0	31,2	28,6	27,0	25,3
Kalifikazioa/Esperientzia	66,5	59,8	60,4	54,5	63,0
Familia-kargak	14,1	16,6	11,6	13,2	13,8
Sexua	5,2	4,0	2,6	1,2	1,8
Sexua/Familia-kargak	18,1	19,1	13,8	14,3	15,3
Soldata-helburuak	13,3	12,5	12,1	3,7	5,3
Mugigarritasun geografikorako ezintasuna	15,0	15,1	16,6	18,3	17,8
Adina	23,5	28,4	19,2	29,4	33,1
Jatorrizko herrialdea	3,8	4,8	5,7	3,6	7,0
Eragozpen fisikoa	3,3	2,1	2,6	3,8	3,1
Eragozpenik gabe	6,1	11,7	14,7	19,5	12,5

Inguruabar negatibo horietan, langabeek lan-aurreikuspenak mugatu dituzte. Ildo horretan, 2006tik aurrera, enplegu berri bat onartzeko ezarritako baldintzak nabarmen murriztu dira, bizileku-aldaketaren onarpena salbuetsita, baita prestakuntza-mailetara eta soldata-aurreikuspen normaletara egokitutako garapen ekonomiko eta profesionalari lotutakoak ere.

Hots, egun, langabeen % 13,2k espero ditu bere kualifikazioaren arabera diru-sarrerak, eta 2006an, % 37,5ek espero zituen. Horrez gain, egun, langabeen % 10,5ek egingo lioke uko bere kategoria baino beheragoko lanpostu bati (2006an, % 24,5ek). Azkenik, langabeen % 8,3k izango lituzke eragozpenak lanaldi partzialeko lan batean hasteko; 2006an, % 25,4k agertu zuen iritzi hori. Azken urteotako balio baxuenetakoak dira, 2011n erregistratutako minimoak baino zertxobait altuagoak (% 10,5; % 8,5 eta % 7,7, hurrenez hurren).

16-64 urteko langabeak: Lanpostu bat lortzeko onartu ez diren baldintzak
2001-2013 aldia
(Biztanleria langabearen %-tan)

Baldintzak	2005	2006	2007	2009	2010	2011	2013
Baldintzaren bat	78,7	82,6	86,4	72,5	74,7	69,3	64,5
Bizilekuz aldatzea	63,5	64,7	75,8	59,8	67,6	65,3	58,6
Kalifikazioari dagozkionak baino diru-sarrera	27,4	37,5	29,5	27,3	17,2	10,5	13,2
Espero baino kategoria apalagoa	18,3	24,5	20,0	22,3	14,4	8,5	10,5
Lanaldi partziala	16,8	25,4	19,9	21,7	14,8	7,7	8,3

Enplegua lortzeko gero eta baldintza prekarioagoak egoteak, bestalde, beste lanpostu bat bilatzen ari den biztanleria landunak gora egitea eragin du. 2011ra arte, eta lanpostuarekiko atxikimendua sendotu egin dela erakusteko, enplegu berria bilatzen duten landunen proportzioa 2009ko % 4,5etik % 3,9-4ra murriztu da 2010etik 2011ra bitartean; 2007. urtean soilik izan zen txikiagoa zifra hori (% 3). 2013an, aldiz, adierazle hori % 6,1era hazi da, eta 2001etik hona eman de zifrarik altuena da.

Beste enplegu baten bila dabilzan 16- 64 urteko landunen bilakaera. 2001-2013 aldia

(Datu absolutuak, urtetik urterako batez besteko hazkunde-tasaren ehunekoa eta hazkundearen ehunekoa 2007-2013 aldian)

Beste enplegu baten bila	Kopuru absolutuak						Hazkundearen % 2007/2013
	2001	2005	2007	2009	2011	2013	
Bai	38.292	42.373	28.775	42.222	37.106	53.928	87,4
Ez	823.522	905.807	942.182	905.037	887.189	832.329	-11,7
Guztira	861.814	948.180	970.957	947.259	924.295	886.256	-8,7
Lan bila ari direnak (%-tan)	4,4	4,5	3,0	4,5	4,0	6,1	

Beste enplegu baten bila dabilzan 16-64 urteko landunen proportzioa, eskualdearen arabera. 1993-2013 aldia

(Ehunekotan)

Eskualdea	1993	1997	2001	2005	2007	2009	2011	2013
Gasteiz	7,9	7,9	5,0	4,3	3,5	5,0	5,5	7,6
Aiaraldea	8,0	5,8	7,5	2,1	3,0	3,9	4,5	6,3
Bilbo Eskuinaldea	4,9	4,9	5,2	5,4	1,6	3,0	2,2	5,3
Bilbo	5,8	7,4	5,2	6,4	3,1	5,2	6,7	7,6
Ezkerraldea	4,9	7,8	5,0	4,7	2,9	6,7	4,5	7,9
Bizkaia-Kosta	5,0	4,9	3,5	2,2	3,2	3,2	3,0	7,5
Durangaldea	6,0	5,8	3,7	2,7	2,1	4,1	2,8	3,7
Donostialdea	5,2	7,7	4,0	4,3	3,2	3,2	3,0	3,9
Tolosa-Goierri	6,9	5,5	2,7	4,7	2,6	3,3	2,0	4,8
Debagoiena	3,2	5,0	3,7	3,3	1,6	2,5	2,4	4,4
Debabarrena	6,3	5,6	,5	2,8	5,3	5,3	2,8	5,7
Guztira	5,7	6,9	4,4	4,5	3,0	4,5	4,0	6,1

19.Langabezia eta indar ekonomikoaren galera

Euskadiko langabeziaren funtsezko ezaugarri bat da gehien bat lan-merkatuan potentzialki esanguratsua den prestakuntzarik duten pertsonen eragiten diela (2013an biztanleria langabearen % 70,3ri; 2011n % 62,7ri). Azpimarragarria da prestakuntzarik duen eta prestakuntza horrekin lotutako esperientziarik bereganatzeko aukerarik ez duen egoeran dagoen biztanleria langabea – prestakuntza horretan lan-esperientziarik ez duelako edo izan badu duela urtebete baino lehenago amaitu duelako– % 46,6tik % 59,4ra igotzea 2011-2013 aldian.

Oraindik ere, biztanleria langabearen gehiengoa da prestakuntza duen taldea, nahiz eta, eskuratutako prestakuntzari dagokion lan-esperientziarik ez izanik ere, duela bi urte baino lehenago amaitutako prestakuntza horrekin lotutako esperientzia gehitu. Kasu horretan, adierazlea % 40tik % 52,2ra hazi da 2001 eta 2013 artean.

**Azken 2 urteotan prestakuntzara egokitutako enpleguko esperientziaren arabera langabezia
2011 eta 2013 urteak
(% horizontalak)**

Prestakuntza akademikoari egokitutako lanpostuan esperientzia						
Urtea	<1 urte	1 eta 2 urte artean	Orain dela 2 urte baino gehiago	Esperientziarik gabe	Ez du prestakuntza esanguratsurik	Informaziorik gabe
2011	16,1	6,7	11,5	28,4	37,1	0,2
2013	10,9	7,0	22,8	29,6	29,3	0,4

Oharra:

Aztertutako adierazleak % 50a gainditzen dute eskualde guztietan, salbuespen batzuk badiren arren. Beti daude maila horren azpitik Gasteizen eta Tolosa-Goierri, baita Debagoienean ere, duela bi urte baino gehiagotik prestakuntzarekin lotura duen lanpostu batekin loturarik izan ez dutela kontuan hartuta. Azken adierazle horri dagokionez, Tolosa-Goierri du, alderaketak eginda, mailarik baxuena, % 28,5. Aldiz, Eskuinaldea eta Bizkaia-Kosta, adierazle hori % 65 baino handiagoa da.

**Prestakuntza izan baina prestakuntza horri dagokion lan-esperientziarik izan ez duten (edo duela urtebete edo bi urte lehenago izan duten) pertsona langabeak, eskualdearen arabera. 2013 urtea
(Biztanleria langabearen %-tan)**

Eskualdea	Esperientziarik gabe edo >	Esperientziarik gabe edo > 2
	urte 1	urte
Gasteiz	46,5	41,4
Aiaraldea	60,8	51,2
Bilbo Eskuinaldea	73,7	65,1
Bilbo	55,3	51,3
Ezkerraldea	62,9	55,0
Bizkaia-Kosta	69,6	65,0
Durungaldea	63,6	57,4
Donostialdea	62,6	54,8
Tolosa-Goierri	42,3	28,2
Debagoiena	60,6	46,3
Debarrena	60,6	54,9
Guztira	59,4	52,5

SEXUAREN ARABERA HAUTEMANDAKO ALDAKETAK

20. Emakumearen garrantziak gora egin du biztanleria aktiboan

Nabarmentzekoa da jarduera-adierazleen bilakaera ezberdina izan dela sexuaren arabera. Alde batetik, gizonezko biztanleria aktiboak beheranzko joera izan du krisia hasi zenetik; 2007tik 2009ra bitarte urteko batez beste % 0,2 jaitsi zen, % 0,5 2009tik 2011ra bitarte, eta % 1 2011tik 2013ra bitarte. Osotasunean, 2007tik 2013ra bitarte, gizonezko aktibo kopurua % 3,3 jaitsi da.

Gizonezko aktiboen kopuruan hautemandako beherakada gizonezkoen jarduera-tasetan gertatutako murrizketarekin du lotura, 2007ko % 80,5etik 2011ko % 78,5era jaitsi baita. Tasa hori % 80,2koa bada ere 2013an⁸, zifra hori 2007koa baino txikiagoa da oraindik ere.

Gizonezkoetan hautemandako dinamikaren beste aldean, emakumezkoen goranzko joera da azpimarratzekoa. Zifra hori 2007-2009 aldiko urteko batez beste % 4,3ko hazkundearekin alderatuta jaitsi egin bada ere, % 1ekoa da 2009-2011 aldian, eta berriz egin du gora 2011 eta 2013 arten (urteko batez besteko % 1,8). Oro har, % 14,9 hazi da emakumezkoen biztanleria aktiboa 2007 eta 2013 urteen artean.

Hautemandako gorakada hori emakumezkoen jarduera-tasaren gorakadarekin batera gertatu da. 2007an % 59,9koa zen, 1993an % 48,4 eta 2011ean % 53,6ra igo ostean, eta tasa hori % 63,9ra igo zen 2009an eta % 65,7ra 2011n. 2013an % 70eko muga gainditu, eta % 70,2ko maximo historikora heldu da.

Gizonen eta emakumeen jardueraren dinamika ezberdin hori argi eta garbi ikus daiteke emakumeek EAEko biztanleria aktiboan duten garrantziaren aldakuntzei erreparatuta. 2007an % 42,1ekoa izanik, emakumeen proportzioak gora egin du, eta 2013an % 46,4koa izan da.

⁸ Hazkunde hori, hein batean, estatistikaren efektuari lotuta dago, 2013an lanerako prest dagoen biztanleria ez-aktiboaren kopurua jaitsi baita.

16-64 urteko biztanleria aktiboaren bilakaera, sexuaren arabera. 2007-2013 aldia

(Datu absolutuak, urtetik urterako batez besteko hazkunde-tasaren ehunekoa eta hazkundearen ehunekoa 2007-2013 aldian)

Sexua	Kopuru absolutuak				Urtetik urterako batez besteko hazkundearen tasa			Hazkundearen ehunekoa 2007/2013
	2007	2009	2011	2013	2007/2009	2009/2011	2011/2013	
Gizonak	579.896	577.695	572.410	560.840	-0,2	-0,5	-1,0	-3,3
Emakumeak	422.462	459.964	468.784	485.527	4,3	1,0	1,8	14,9
Guztira	1.002.357	1.037.659	1.041.195	1.046.366	1,7	0,2	0,2	4,4
Bizt.aktiboan emakumeen %	42,1	44,3	45,0	46,4				

16-64 urteko biztanleriaren jarduera-tasaren bilakaera, sexuaren arabera.**1993-2013 aldia**

(Ehunekotan)

Sexua	Jarduera-tasa							
	1993	1997	2001	2005	2007	2009	2011	2013
Gizonak	76,1	75,9	77,9	80,5	80,5	78,9	78,5	80,2
Emakumeak	49,4	52,2	53,6	58,4	59,9	63,9	65,7	70,2
Guztira	62,9	64,1	65,8	69,6	70,3	71,5	72,2	75,2

Emakumeek 2007tik 2012ra bitarte biztanleria aktiboan duten garrantziaren gorakada EAEko eskualde guztietan gertatu da, Debagoienean izan ezik. Eskualde horretan, 2007an emakumeen garrantzi erlatiboa biztanleria aktiboan handiagoa zen eta adierazle hori % 44,5 inguruan mantendu da 2013an. Hazkunde handienak, aldiz, Debabarrena, Eskuinaldea, Bizkaia-Kosta eta Gasteizko eskualdeei dagozkie. Azken hori eskualdeetan, baita Bilbon ere, emakumeek biztanleria aktiboan duten garrantziak maila maximoa lortu du, % 47,5 eta % 48 artean.

Emakumeek 16-64 urteko biztanleria aktiboan duten proportzioaren bilakaera, eskualdearen arabera.**2007-2013 aldia**

(Ehunekotan)

Eskualdea	2007	2009	2011	2013
Gasteiz	40,7	44,6	43,7	47,6
Aiaraldea	40,8	41,2	40,6	44,0
Eskuinaldea	43,0	45,4	45,5	48,2
Bilbo	43,6	46,1	47,2	47,6
Ezkerraldea	40,9	43,3	44,3	44,9
Bizkaia-Kosta	41,8	43,0	44,4	47,5
Durangaldea	40,8	43,1	45,9	44,9
Donostialdea	43,6	44,7	45,5	46,7
Tolosa-Goierrri	40,6	42,0	43,3	43,9
Debagoiena	44,4	46,4	46,0	44,7
Debabarrena	38,7	43,0	42,9	44,8
Guztira	42,1	44,3	45,0	46,4

21.2011tik 2013ra bitarte, okupazio-galerak emakumezkoen biztanleriara hedatu dira baina gizonezkoen biztanleriaren okertzea indartu egin da, eta emakumeak okupazioan duen garrantziak gora egin du

2007tik 2009ra bitarte, emakumezkoen biztanlerian okupazioa urteko batez beste % 2,1 hazi da eta, aldiz, gizonezkoen okupazioa % 3,7 jaitsi. Krisiaren lehen zatian, izan ere, okupazioaren galera garbiak gizonezkoetan kontzentratu dira.

2009tik aurrera, hala ere, emakumeak okupazioaren beherakadaren prozesuan datu garbietan parte hartzen hasi dira eta, beraz, emakumezkoen biztanleria landuna urteko batez beste % 0,6 jaitsi da 2009tik 2011ra bitarte, eta % 1 2011tik 2013ra bitarte. Hala ere, galera horiek gizonenak baino nabarmen txikiagoak dira oraindik ere. Hori begi bistakoa da 2009tik 2011ra bitarte, gizonen urteko batez besteko beherakada 1,1 puntu handiagoa izan baita (urteko % -1,7, batez beste, emakumeen % -0,6aren alboan). Hala ere, faktore hori erabakigarriagoa izango da krisiaren bigarren zatian. Hala, 2011tik 2013ra bitarte emakumeen okupazioa urteko batez beste % 1 jaitsi bada, beherakada hori % 3koa izan da gizonezkoetan.

Emakumeen kasuan, gainera, 2009tik aurrerako okupazio-galerak ez dira nahikoak izan 2007-2009 aldiko okupazio-gorakada handia orekatzeko. Hartara, 2007 urtean baino % 1,2 emakume landun gehiago dago 2013an. Beste aldean, 2007tik 2013ra gizonen okupazioak % 15,8 egin du behera.

2011ko emakumeen okupazio-koefizienteak % 59,2ko maximo historikoa lortu du 2013an, 2009ko % 58,8ko erregistro onena gaindituta. Zifra horrek nabarmen gainditu du 2007ko % 57,4a, berriz gorantz egin baitu 2011n adierazlea % 58,5era jaitsi ondoren. Aldiz, 2007an % 78,6ko maximoa lortu ondoren, gizonezkoen koefizientea ia 10,5 puntu txikiagoa da, 2013an % 65,1ekoa baita. 2013ko adierazleak pasa den mendeko 90eko hamarkadan erregistratutakoa baino ez du gainditzen, eta 2001eko % 73,5etik ere urrun gelditu da.

Emakumeen okupazioan izandako bilakaera onari esker, Euskadiko okupazioan emakumeak duen partaidetzak gorantz jarraitu du. 2007an guztizko okupazioaren % 41,7 zegokion emakumeari, eta proportzio horrek etengabe egin du gora 2009an % 44,6 eta 2013an % 46,3 lortu arte.

16-64 urteko biztanleria landunaren bilakaera, sexuaren arabera. 2007-2013 aldia

(Datu absolutuak, urtetik urterako batez besteko hazkunde-tasaren ehunekoa eta hazkundearen ehunekoa 2007-2013 aldian)

Sexua	Kopuru absolutuak				Urtetik urterako batez besteko hazkundearen tasa			Hazkundearen ehunekoa 2007/2013
	2007	2009	2011	2013	2007/2009	2009/2011	2011/2013	
Gizonak	565.770	524.590	506.433	476.313	-3,7	-1,7	-3,0	-15,8
Emakumeak	405.188	422.669	417.861	409.943	2,1	-0,6	-1,0	1,2
Guztira	970.957	947.259	924.295	886.256	-1,2	-1,2	-2,1	-8,7
Bizt.landunean emakumeen %	41,7	44,6	45,2	46,3				

16-64 urteko biztanleriaren okupazio-koefizientearen bilakaera, sexuaren arabera. 1993-2013 aldia (Ehunekotan)

Sexua	Okupazio-koefizientea								
	1993	1997	2001	2003	2005	2007	2009	2011	2013
Gizonak	61,4	65,4	73,5	74,5	77,3	78,6	71,6	69,5	68,1
Emakumeak	31,6	36,7	47,3	52,2	54,8	57,4	58,8	58,5	59,2
Guztira	46,6	51,1	60,5	63,4	66,1	68,1	65,2	64,1	63,7

2007tik 2013ra bitartean, emakumeek okupazioan duten garrantzia hazten joan da EAEko eskualde guztietan, berriz ere, Debagoienean izan ezik. Eskualde horretan –2007an emakumezkoen okupazioaren proportzio altuena izateagatik gailentzen zen, % 44–, adierazlea % 43,2ra jaitsi da, eta 2013ko EAEko batez bestekoa baino 3,1 puntu beherago kokatu da. Aldiz, hazkundeak 5 puntu baino handiagokoak izan dira Gasteizen, Aiaraldean, Bizkaia-Kostan eta Debabarrenean. Emakumeek okupazioan duten garrantzia % 47,3-48,1era iritsi da Gasteizen, Eskuinaldean, Bizkaia-Kostan eta Donostialdean.

Debagoienaren kasua bereziki aipagarria da: EAEko eskualde guztiek 2007 eta 2013 bitartean emakumezkoen okupazioak gora egin zuenean, eskualde horretan beherakada handia nabari da aldi horretan, eta 2007an emakumezkoen okupazio-koefizientea % 66 izatetik % 60,1 izatera pasa da 2013an. Beherakada hori 2011-2013 aldiarekin lotuta dago, izan ere, 2007 eta 2009 artean % 66tik % 63,4ra jaitsi ondoren, koefizientea % 65,4ra iritsi baitzen 2011n. Debagoiena da, baita ere, gizonezkoen okupazio-koefizientearen beherakadarik txikiena izan duen eskualdea (-4,5 puntu, EAEko batez besteko 10,4 puntuen alloan; gainerako eskualdeetan gutxienez 7,5 puntuko zifrak izan dituzte).

Antzeko egoera izan du Aiaraldeak ere, berau izan baita 2007 eta 2013 artean emakumezkoen okupazio-koefizienteak behera egin duen EAeko beste eskualdea (% 59,6tik % 55,9ra). Hala ere, kasu horretan, beherakada hori gizonezkoen koefizientearen ikus daitekeen 15,6 puntuko beherakada baino askoz ere baxuagoa da, eta, beraz, emakumeek okupazioan duten garrantzi erlatiboak gora egin du. Bestalde, Debagoienean ez bezala, eskualde horretako emakumezkoen okupazioaren beherakada krisiaren hasieran abiatu zen, 2007-2009 artean % 59,6tik % 54,9ra jaitsi baitzen. 2011n % 56,8ra igo bazen ere, % 55,8ra jaitsi zen 2013an, krisiaren bigarren zatian.

Aiaraldean gertatu bezala, emakumezkoek okupazioan duten presentziaren gorakada bultzatu duen faktore nagusia gizonezkoen okupazio-koefizientearen beherakada izan da. Horixe gertatu da Bilbon, Ezkerraldean, Donostialdean eta Tolosa-Goierri. Eskualde horietan, gizonezkoen koefizientea 8,7 eta 11,2 puntu artean jaitsi da 2007-2013 aldian, eta emakumezkoen koefizienteak, orokorrean, 0,4 eta 0,7 puntu artean baino ez du gora egin.

Emakumezkoen okupazioaren gorakada nabarmenenak, 2007 eta 2013 artean, Gasteiz, Eskuinaldea, Bizkaia-Kosta, Durangaldea eta Debabarrenari dagozkie, orokorrean 3,9 eta 6,5 puntu arteko hazkundea izan baitute; 8,9 puntuko maximoa Debabarrenean jaso da. Eskualde horietan, hala ere, emakumeek okupazioan izan duten gorakada nabarmenagoa da, gizonezkoen okupazio-koefizientea 7,5 eta 13,7 puntu artean jaitsi delako.

Emakumeek 16-64 urteko landunen artean duten proportzioaren bilakaera, eskualdearen arabera.
2007-2013 aldia
(Ehunekotan)

Eskualdea	2007	2009	2011	2013
Gasteiz	40,6	45,7	44,4	47,5
Aiaraldea	40,5	40,7	40,3	44,6
Bilbo Eskuinaldea	42,4	45,9	45,7	48,1
Bilbo	42,8	46,5	48,8	46,2
Ezkerraldea	40,4	43,3	44,8	44,7
Bizkaia-Kosta	41,4	43,3	43,6	48,1
Durangaldea	40,2	43,2	45,8	44,4
Donostialdea	43,4	45,1	45,0	47,3
Tolosa-Goierri	40,4	41,6	42,9	44,0
Debagoiena	44,0	45,9	45,4	43,2
Debabarrena	37,9	42,8	42,9	45,4
Guztira	41,7	44,6	45,2	46,3



**16tik 64 urtera arteko biztanleen okupazio-koefizientearen bilakaera, sexuaren eta eskualdearen arabera.
2007-2013 aldia
(Ehunekoetan)**

Eskualdea	Gizonak				Emakumeak			
	2007	2009	2011	2013	2007	2009	2011	2013
Gasteiz	80,6	69,5	70,0	66,9	57,4	61,3	58,5	62,0
Aiaraldea	81,7	74,4	78,1	66,1	59,6	54,9	56,8	55,9
Eskuinaldea	77,0	69,9	70,3	67,2	55,1	56,9	56,9	59,1
Bilbo	76,0	70,4	62,1	67,3	55,2	58,6	56,9	55,7
Ezkerraldea	76,7	71,4	67,3	65,4	53,4	55,4	55,5	53,8
Bizkaia-Kosta	76,6	72,0	70,0	66,9	57,1	58,0	56,8	63,6
Durantaldea	80,8	71,0	69,5	73,3	57,4	56,5	61,4	61,1
Donostialdea	79,8	74,1	73,3	69,4	61,6	61,7	61,1	62,4
Tolosa-Goierri	82,9	75,2	75,1	72,2	61,3	58,9	62,5	62,0
Debagoiena	78,0	69,7	72,1	73,4	66,0	63,4	65,4	60,1
Debarrena	81,5	68,9	71,5	70,2	53,5	55,9	58,6	62,4
Guztira	78,6	71,6	69,5	68,1	57,4	58,8	58,5	59,2

22. Emakumezkoen jardueraren gorakadak emakumezkoen langabeziak 2009tik aurrera gora egitea eragin du. Hala ere, epe luzera, langabezia-adierazleek gehiago egingo dute okerrera gizonezkoetan.

Emakumezkoen okupazioaren bilakaera hobea emakumeek lan-merkatuan duten gero eta presentzia handiagoak baldintzatuta dator. Emakumezkoen jarduerak nabarmen gora egiten duten testuinguruan –gizonezkoetan hautemandako beherakadaren alboan–, 2009tik aurrera erritmo azkarragoan, eta gero eta diferentzia handiagoan, haziko da emakumeen langabezia: urteko % 16,9, batez beste, gizonezkoen % 11,5aren alboan 2009-2011 aldian, eta % 21,8 gizonezkoen % 13,2aren alboan 2011 eta 2013 artean. Izan ere, emakumeek pairatu dute 2009-2013 aldiko langabezia-zifretan % 54,9aren gorakada.

Horren ondorioz, emakumeek biztanleria langabeian duten garrantzia gora egin du azken urteotan, eta 2009ko % 41,3ko proportziotik % 47,2ra igo da 2013an. Hala ere, proportzio hori 2007ko emakumezkoen langabeziaren % 55eko zifratik oso urrun dago. Urte hori izan zen krisi ekonomikoen prozesua hasi baino lehenagoko urtea. Horren arrazoia da krisiaren lehenengo zatian langabeziaren gorakadaren % 66,1 gizonezko biztanleena dela. Osotasunean, eta 2009tik aurrera langabeziaren bilakaera alderatuta emakumeena okerragoa bada ere, 2007-2013 aldiko langabeziaren hazkunde garbiaren % 54,7 gizonezkoekin lotuta dago.

Emakumeen langabeziaren dinamikak 2009tik aurrera okerrera egitearen ondorioz, emakumeen artean langabezia-tasa handiagoetara itzuli zen. 2009-2011 aldian emakumeen langabezia-maila gizonezkoen azpitik egon ondoren, emakumeen langabezia-tasa gizonezkoena baino zertxobait altuagoa da 2013an (% 15,6, gizonezkoen % 15,1aren alboan).

2013an emakumezkoen langabezia-tasa, bestalde, 2001eko baino altuagoa da (% 15,6koa, % 11,7koaren alboan), nahiz ere 1993an eta 1997an hautemandako tasen azpitik egon (% 36,1 eta % 29,8). Gizonezkoen tasa, aldiz, 2001eko tasa ia hirukoizteaz gain (% 15,1, % 5,6aren alboan), 1997ko tasa ere gainditzen du (% 13,8).

16-64 urteko biztanleria langabearen bilakaera, sexuaren arabera. 2005-2013 aldia

(Datu absolutuak, urtetik urterako batez besteko hazkunde-tasaren ehunekoa eta hazkundearen ehunekoa 2007-2013 aldian)

Sexua	Kopuru absolutuak				Urtetik urterako batez besteko hazkundearen tasa			Hazkundearen ehunekoa 2007/2013
	2007	2009	2011	2013	2007/2009	2009/2011	2011/2013	
Gizonak	14.126	53.105	65.977	84.526	93,9	11,5	13,2	498,4
Emakumeak	17.274	37.295	50.923	75.584	46,9	16,9	21,8	337,6
Guztira	31.400	90.400	116.900	160.110	69,7	13,7	17,0	409,9
Bizt.langabearen emakumeen %	55,0	41,3	43,6	47,2				

16-64 urteko biztanleriaren langabezia-tasaren bilakaera, sexuaren arabera. 1993-2013 aldia (Ehunekotan)

Sexua	Langabezia-tasa							
	1993	1997	2001	2005	2007	2009	2010	2011
Gizonak	19,3	13,8	5,6	4,0	2,4	9,2	11,5	15,1
Emakumeak	36,1	29,8	11,7	6,2	4,1	8,1	10,9	15,6
Guztira	25,9	20,3	8,1	4,9	3,1	8,7	11,2	15,3

23. Gizonen eta emakumeen langabeziaren bilakaeran ezberdintasun handiak daude eskualdeen arabera

Oso interesgarria da gizonen eta emakumeen langabeziaren dinamika eskualdez eskualde aztertzea, ezberdintasun handiak baitaude. Alde batetik, aipatzekoak dira biztanleria langabearen emakumeen garrantziaren beherakada egiturazko ildoan agertzen diren eskualdeak. Hori gertatzen da langabeziaren osotasunean emakumeen 2013ko garrantzia 2007koa baino txikiagoa eta 2009koaren antzekoagoa duten eskualdeetan. Hori gertatzen da Aiaraldean, Bizkaia-Kostan, Donostialdean, Tolosa-Goierrin eta Debarrenean. Eskualde horiek bi elementu komun dituzte: 2007tik 2013ra bitarte emakumezkoen langabezia-tasa gizonetzkoena baino gutxiago hazi da, eta emakumezkoen langabezia-tasa EAEko batez bestekoa baino txikiagoa da.

Durungaldeak baditu aurreko eskualdeen ezaugarri antzekoak, bereziki bertako emakumeen langabezia-tasa EAEko batez bestekoaren azpitik dagoela, baina bertan, 2009tik aurrera, emakumezkoen langabezia gizonetzkoena baino gehiago hazi da.

2009tik aurrera emakumezkoen langabezia-tasa gizonezkoena baino gehiago haztea ere gertatu da gainerako euskal eskualdeetan: Gasteizen, Bilboko hiru eskualdeetan eta Debagoienera. Eskualde horietan kokatzen da, gaur egun, emakumezkoen langabezia-tasarik altuena, Gasteizen, Eskuinaldean eta Debagoienera % 14,8 eta % 15,8 artekoa da, Ezkerraldean % 18,8koa eta Bilbon % 20,7koa. Orokorrean, eskualde horietan 2001tik 2013ra bitarte emakumezkoen langabezia-tasaren batez bestekoa baino askoz gehiago hazi da, 7,7 eta 9,8 puntu artean, EAEko batez bestekoa 4,7 igo denean. Ezkerraldea da 2011 eta 2013 arteko hazkunde horren salbuespena, baina, hein handi batean, emakumezkoen langabeziaren hazkunde hori 2009-2011 aldira aurreratu zelako izan da; Bilbon ere antzeko bilakaera gertatu da.

Aipatu eskualdeetan, orokorrean, emakumezkoek 2013ko guztizko biztanleria langabeen 2007koan zuten garrantzia baino txikiagoa dute. Horren arrazoia da 2007-2009 aldian gizonezkoen langabeziaren hazkundearen ezberdintasun-eragina handiagoa zela. Gasteizen kasuan, emakumezkoen jarduera nabarmen hazi den lekuan, hazkunde hori ez da nahikoa, eta 2013an biztanleria langabeen emakumeek duten garrantzia 2007an zutena baino handiagoa den eskualde bakarra da (% 48,1, % 42,5aren alloan).

Bilbon eta Debagoienera, bilakaerak alderatuta emakumeen langabeziak bilakaera okerragoa izatearen ondorioz, emakumezkoek langabeen osotasunean duten garrantzia nagusia da. 2013an, % 54ko proportzioa du Bilbon, eta % 55,4koa Debagoienera. Bilbon horrek 2009-2011 aldian emakumezkoen langabeziaren bilakaeraren okertzea islatzen duen bitartean, Debagoiena da 2007tik aurrera biztanleria langabeen emakumeen garrantzi nagusiari eusten dion eskualde bakarra.

16-64 urteko biztanleriaren langabezia-tasaren bilakaera, sexuaren eta eskualdeen arabera. 2007-2013 aldia
(Ehunekotan)

Eskualdea	Gizonak				Emakumeak			
	2007	2009	2011	2013	2007	2009	2011	2013
Gasteiz	2,0	12,7	8,6	15,5	2,2	8,5	6,0	15,8
Aiaraldea	1,2	5,7	5,4	16,3	2,2	7,5	6,6	14,3
Eskuinaldea	3,2	7,3	7,7	14,5	5,5	5,3	7,2	14,8
Bilbo	3,5	10,1	18,8	16,0	6,7	8,8	13,7	20,7
Ezkerraldea	3,0	10,6	16,9	18,2	4,9	10,7	15,3	18,8
Bizkaia-Kosta	2,3	8,2	11,9	14,1	3,9	7,2	14,7	12,3
Durungaldea	1,0	9,0	11,5	10,8	3,2	8,8	11,9	12,7
Donostialdea	2,5	8,1	8,2	14,8	3,2	6,7	10,0	12,5
Tolosa-Goierri	1,3	4,9	5,0	11,3	2,1	6,7	6,4	11,2
Debagoiena	,7	4,8	5,2	9,8	2,3	6,4	7,3	15,1
Debabarrena	1,1	9,1	6,4	14,9	4,6	9,5	6,5	12,8
Guztira	2,4	9,2	11,5	15,1	4,1	8,1	10,9	15,6

**Emakumeek 16.64 urteko langabeen artean duten proportzioaren bilakaera, eskualdearen arabera
2007-2013 aldia
(Ehunekotan)**

Eskualdea	2007	2009	2011	2013
Gasteiz	42,5	35,1	34,9	48,1
Aiaraldea	56,8	48,0	45,4	40,8
Bilbo Eskuinaldea	56,6	37,8	43,9	48,8
Bilbo	60,0	42,6	39,4	54,0
Ezkerraldea	53,5	43,5	42,0	45,7
Bizkaia-Kosta	55,1	39,9	49,7	44,2
Durangaldea	69,2	42,4	46,6	48,9
Donostialdea	49,9	40,2	50,3	42,6
Tolosa-Goierri	53,9	49,7	49,3	43,8
Debagoiena	73,1	53,8	54,4	55,4
Debabarrena	71,6	44,1	43,4	41,0
Guztira	55,0	41,3	43,6	47,2

Langabeziaren egungo eragina sexuaren arabera aintzat hartzerakoan, egiazta daiteke bost eskualdeetan langabezia-tasa % 14tik gora dagoela, gizonen eta emakumeen kasuan. Hori gertatzen da Gasteiz, Aiaraldea, Eskuinaldea, Bilbo eta Ezkerraldean. Azken eskualde horretan bi sexuetan % 18 gainditu dute. Generoaren araberrako langabezia-tasarik handiena, aldiz, Bilboko emakumeei dagokie, % 20,7koa baita.

Aipatu eskualde horiek ez bezala, lau eskualdetan bi sexuetako batek % 15 inguruko langabezia-tasa du. Bizkaia-Kosta, Donostialdea eta Debabarrean gizonei dagokie tasarik altuena, % 14,1 eta % 14,9 artekoa, emakumeen % 12,3 eta % 12,8 arteko tasak baino altuagoak baitira. Debagoienean, aldiz, emakumezkoen langabezia-tasak % 15eko muga gainditzen du (% 15,1).

Egoera orekatuena Durangaldeak eta Tolosa-Goierri dute, bi generoen langabezia-tasa % 11 eta % 13 artean kokatzen baita.

2011n zazpi euskal eskualdetan –Araba eta Gipuzkoako guztietan eta Eskuinaldean– gertatzen zena ez bezala, ez zen eskualderik kokatu bi generoetan langabeziaren % 10 edo gutxiagoko zifretan 2013an. Izan ere, Debagoieneko gizonen biztanleria da muga hori baino zertxobait baxuagoa 2013an (% 9,8).

ADINAREN ARABERA HAUTEMANDAKO ALDAKETAK

24. Biztanleria aktiboaren zahartze-prozesua

Biztanleria aktiboaren testuinguruan, 2007tik 2013ra bitarte erabakigarria izan da 35 urtetik gorako biztanleriari lotutako hazkundera, 2007ko 648.584 pertsona aktibo izatetik 772.806 izatera igaro baita 2013an. Gorakada nabarmen horrek 35 urtetik beherako biztanleria aktiboari eragiten dion beherakada nabarmena orekatzen laguntzen du. Adin horretako pertsona aktiboen kopurua 80.000 pertsona baino gehiago murriztu da, eta 2007an 353.773 pertsona izatetik 273.561 pertsona izatera igaro da 2013an; sei urtetan % 22,7 jaitsi da.

Hautemandako beherakada 6,8 puntutan 25 urtetik beherako biztanleriaren jarduera-tasaren beherakadarekin lotzen bada ere, beherakadaren 15,8 puntu azpiko faktore demografikoei dagozkie; hein handi batean, Euskadin pasa den mendeko 70eko hamarkadatik aurrera gertatutako jaiotza-tasaren beherakada handiari lotuta daude, 35 urtetik beherako guztizko biztanleria murriztu baitzen.

2007-2013 aldian, beherakadaren oinarri nagusia –55.548 pertsona aktibo gutxiago zeuden– 25 eta 34 urte arteko taldeari dagokio, eta 25 urtetik beherako 24.664 pertsona aktibo gutxiago zeuden. Garrantzitsua da kontuan hartzea biztanleria aktibo gaztearen galera progresiboaren prozesu hori –immigrazio-egon ezean, gainera, gora egingo du–, nabarmen arindu da, orain artean, aldeko migrazio-saldoari esker. Immigrazioaren faktorerik gabe, 25 urtetik 34 urtera arteko biztanleria guztizkoaren murrizketa 109.163 pertsonako izango litzateke 2013an, eta ez benetan hauteman daitekeen 67.100 pertsonakoa.

